

hh

hik hasi

Udako
Topaketak

2016



Donostian eta Leioan

XVII. **hik hasi** udako topaketak

2016ko ekainak 28, 29 eta 30 LEIOAn
2016ko uztailak 4, 5 eta 6 DONOSTIAN



S a r r e r a

hik hasi proiektuak hamazazpigarren urtez antolatu ditu **Udako Topaketa Pedagogikoak**. Ekainaren 28an, 29an eta 30ean EHUren Bizkaiko Irakasle Eskolarekin batera Leioan, eta, uztailaren 4ean, 5ean eta 6ean EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatearekin batera Donostian. Horrela, gaurkotasun handia duten gaiei buruzko ikastaroak egin ahal izango dira euskaraz.

Ikastaroak eskaintzeaz gain, hainbat arlotako irakasleak elkartzeko eta beren esperientziak trukatzeko topaleku izatea ere nahi dugu. Bertan, hausnarketa, asmo, ideia, proiektu eta berrikuntzak plazaratuko dira.

Aipatutako ikastaro guztiak goizez egingo dira. Arratsaldeetan, hala ere, tailerrak, aurkezpenak eta eztabaida saioak izango dira.

Iazko probaren ostean, aurten, bigarren aldiz, Bizkaian ere egingo ditugu Topaketak, zehazki, EHUren Leioako Irakasle Eskolan.

Ordutegia

Ikastaroak: 9:00etatik - 14:00etara

Arratsaldeetako saioak, Donostian soilik: 16:00etatik - 18:30era

Topaketak, beraz, **Donostiako EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean** eta **EHUren Leioako Irakasle Eskolan** egingo dira.

Kopuru mugatuko ikastaroak

Ikastaro horietan aurrena izena ematen dutenek izango dute lehentasuna.

Pedagogia Sistemikoa ikasgelan

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Pedagogia Sistemikoak hezkuntza errealitate zabala hartzen du bere baitan, eta hezitzailearen jarreran jartzen du arreta berezia. Pedagogo Sistemikoak ikaslearen errealitatea bere osotasunean hartzen du, dena delako abiapuntua onartuz. Honela, hezitzaileak ikasgelan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) “dagokion lekua hartzen duenean” aukera ezberdinak irekitzen zaizkio.

Norentzat

Hezkuntza komunitatean diharduten profesionalentzat, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenarentzat, gurasoentzat eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona ororentzat.

Landuko diren gaiak

- Pedagoia Sistemikoa: ikuspegi sistemikoa eta ordenaren txertaketa.
- “Zer da dagokidan lekuan egotea?”. Sistema guztiek berezko dituzten barneko hurrenkerak irizpideak.
- Sistema ezberdinak. Familia eta eskola. Familian kokatzearen garrantzia.
- Ikasle bakoitzaren oinarriko beharrak.
- Hezitzaileak bere ikasleen abiapuntua ezagutzeko baliabideak.
- Ikasleen eta hezkuntza komunitatearen aniztasuna, jatorria eta testuingurua.
- Hezkuntzako profesional gisa, “Zein da nire errealitatea, zeintzuk dira nire funtzioak, ardurak eta nire mugak?”
- Elkarrizketak familiekin, protokoloa.
- “Zer da autoritatea izatea?” Autoritatea, sistemaren arduratik eta ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzetik.

Metodologia

Gaitegia garatzeko azalpenak modu **teorikoan zein praktikoan emango dira**, dinamikak proposatuz egingo da. Praktika konketuak banaka, talde txikitik eta talde osoan.

Ikastaroak izaera **teoriko-praktikoa** izango du.

***Aitziber ESNAOLA ARRIBILLAGA**. Titulazioz Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua. Egun Hezkuntza Proiektu “alternatibo” batean dihardu lanean.

***Larraitx MENDIZABAL HUITZI**. Titulazioz Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakasle (EHU), Psikoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikoan, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua.

* **KOPURU MUGATUA** *

Pentsamendu autonomoa eta sortzailea komunikazio enpatikoan

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Ume eta gazteek, beraien pentsamendu autonomoa eta sortzailea modu esanguratsuan eraiki ahal izateko espazioak sortu eta eskaini behar dira. Talde elkarrizketa eta komunikazio enpatikoaren metodologiaren bidez. Orainean eta etorkizunean modu arduratsuan sentitzen, pentsatzen eta elkarlanean erabakiak hartzen duten pertsonak eta herritarrak izateko.

Norentzat

Haur eta gazteekin lan egiten dutenentzat eta elkarrizketaren izaera holistikoan interesa dutenentzat.

Helburuak

1. Taldean besteekin pentsatzeko, komunikatzeko, ikertzeko eta sentitzeko aukerak ematea, espazio eta kontestu egokiak sortuz.
2. Ume eta gazteen pentsamendu dimentsio anizdunaren garapena ulertzeko giltzarriak eskaintzea, tresna praktikoak, gogoetatsuak eta sortzaileak erabiliz.

Edukia

- Zer da elkarrizketa?
- Nola sortu elkarrizketarako testuinguru egokiak? Ze baliabide daude?
- Bakarrik edo besteekin pentsatzen dugu hobeto?
- Nola sentitzen gara besteen ikuspuntu ezberdinen aurrean?
- Zer esan nahi du “entzuteak”?
- Zer da galderaren pedagogia?
- Ze komunikazio eta elkarrekintza mota sortu nahi dugu gizakion artean? Eta gure ingurune hurbilean?
- Zer dira pentsamendu trebetasunak?

Metodologia

1. Metodologia parte-hartzaile eta dinamikoa: jarduera praktikoak, ludikoak eta sortzaileak.
2. Elkarrizketa eta gogoeta komunitatea.
3. Fundamentazio teorikoa.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* Miren CAMISON GOIENETXEA. Haur Filosofiako irakaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Adimen Anitzak eta Autoestimua; motibazioaren osagai

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Ikastaro honetan, Howard Gardnerren “Adimen Anitzak” teoriari helduko diogu, eta hezkuntza paradigma aldatzearen beharraz jabetuko gara. Pertsona orok, gu-txienez 8 adimen mota ditugula jakitearekin batera, alde batetik, gure autoestimuari bultzada bat emango diogu, denok baikara argiak edo trebeak zerbaitetan, eta bestetik, konturatuko gara, era desberdinetan landu eta hobetu ditzakegula zailtasun gehiago aurki ditzakegun arloak. Beraz, norberaren adimen nabarmenak ezagutzeko aukera izango dugu ikastaro honetan, eta honi ahalik eta etekin handiena aterako diogu beharrezkoak diren baliabide edo estrategiak ezagutuz. Hemen ikasiko duguna ikasleekin aurrera eramaten badugu, ikasleen motibazioan eragin positiboa izan dezakegula ikusiko dugu.

Norentzat

Hezkuntzan lan egiten duen edonorentzat, hezkuntzan lan egin nahi dutenentzat eta baita teoria hau sakonago ezagutu nahi duten guztientzat ere.

Gaiak

Adimen Anitzak, norberaren adimenak, autoestimua, baliabideak.

Metodologia

Ikastaro teoriko-praktikoa izango da. Baina batez ere praktikoa izanen da, hainbat ekintza eginen baititugu teorian oinarrituz ere.

* **Edurne ETXEBERRIA TELLETXEA.** Lehen Hezkuntzan irakaslea. IMP eskolan formatua, Rey Juan Carlos Unibertsitateetik “Coach Personal y Educativo con Inteligencia Emocional y PNL”. Camilo José Cela Unibertsitatean formatua “Especialista en Inteligencias Múltiples y Aprendizaje Cooperativo”.

* *KOPURU MUGATUA* *

Irakaslearen komunikatzeko estiloa eta efikazia gela barruko hezkuntzan

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Ikasle izan gareneko ibilbidean, irakasle denak ez zaizkigu neurri berean onak iruditu, batzuk txundituta utzi gaituzten bitartean, beste batzuk aspertu egin gintuzten. Esan ohi da, bata eta besteen artean komunikatzeko era dela aldatzen dena. Baina, zertan gauzatzen da komunikatzeko era hau?, nola baldintzatzen du irakaslearen egiteko moduak gelako giroa eta ikaslearen jokabidea eta ikaskuntza? Eta garrantzitsuen, nola eraikitzen dugu pertsonok komunikatzeko gaitasuna eta nola garatzen da? Pentsamenduak eta bizipenak giltzarri dira. Ikastaro honetan, aipatutako ideia hauek ardatz legez hartuta, norbere egiteko erari, eta komunikatzeko moduari buruzko hausnarketa sustatu nahi da, eta ikerketa oinarria delarik hobekuntzarako ideiez hornitu.

Norentzat

Gela barruko komunikazioa interesatzen zaion irakasleriarentzako: Haur Hezkuntza (2.zikloa), Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoan eta Lanbide Hezkuntzako etapetan lan egiten dutenentzat.

Gaiak

Irakaslearen komunikatzeko estiloa (hitzezkoa eta ez hitzezkoa): Ekintza (kontzientziaz egiten dena); Pentsamendua (irakaslearen idearioa eta bere komunikatzeko modua); Bizipena (irakaslearen sentimenduen isla); efikazia (ondorio bat).

Metodologia (praktikoa eta teorikoa).

Eginda dauden ikerketak eta bertaratutakoen esperientziak oinarri modura hartuko dira. Azalpen magistralak eta esperientzien hausnarketak partekatuko dira.

* Verónica AZPILLAGA LARREA. Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea, Hezkuntza Zientzien, Filosofia eta Antropologiako Fakultatean (Pedagogian).
<https://www.ehu.es/es/web/filosofia-bezkuntza-zientziak/veronica-azpillaga>

* KOPURU MUGATUA *

Laguntza inklusiboa eskoletan.

Praktika inklusiboen analisia

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Eskolatik komunitatean dagoen aniztasunari erantzun bat eman behar diogu. Horretarako laguntzak ere bai modu inklusiboan antolatu behar ditugu. Prozesu horretan eskolako profesionalek elkarrekin lan egin behar dugu gure praktikak aztertzen eta hobekuntzak proposatzen.

Norentzat

- Ikastetxeetako irakasleentzat (HH, LH eta DBH).
- Laguntza zerbitzuetan, eskolan, zonaldetan, eta abarretan lan egiten duten profesionaleentzat (laguntza irakasleak, aholkulariak, orientatzaileak, e.a.).
- Eskola Inklusiboan interesa duen edozein pertsonarentzat.

Landuko diren gaiak

- Eskolako laguntza profesionalen zeregina eskola inklusiboan.
- Laguntza ereduak eta laguntza praktiken analisia.
- Eskolako laguntza taldearen zeregina (bir)pentsatu, inklusioaren ikuspuntutik.
- Irakasleen arteko harremanak: irakasleen arteko lan kooperatiboa.

Metodologia

Saioen izaera teoriko-praktikoa izango da, partaideen esperientziatik abiatuta, hainbat teoria analisiren tresna bezala erabili eta proposamenak eraikitzeko aukera emanez.

***Javier MONZON GONZALEZ.** Didaktika eta Eskola Antolakuntza saileko irakasle titularra Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Donostiako Irakasle Eskolan. Inklusioa, laguntza irakasleak, laguntza zerbitzuak, aholkularitza eta eskola antolakuntza du aztergai bere irakasgaietan eta ikerketa lanetan. Ikastetxe eta Berritzegune ezberdinetan formazioa eman du gai hauen inguruan.

* *KOPURU MUGATUA* *

Eskola libre eta demokratikoak:

etorkizuneko gizartea alda dezakeen heziketa-eredua

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Hezkuntza ez da gizarte sistematik eta haren balio eta helburuetatik aparte uler daitekeen zerbait. Aitzitik, sistema mantenduko duen herritarra fabrikatu / doktrinatzeko eginkizunean hezkuntza-sistemak daukan zeregina funtsezkoa eta ezinbestekoa da. Horrela, egungo sistemaren gaineko hausnarketa egitea zinez garrantzitsua da, bertako heldu / haur arteko harremana osasuntsuagoa eginez, haurra benetako protagonista duen eskola demokratikoagoa sortze aldera.

Norentzat

Maisu-maistra eta irakasleentzat. Haur-hezitzaileentzat. Eskolatzeko adina duten haurren gurasoentzat, eta interesa duen edonorentzat.

Edukiak

1. Haurraren heziketa. Familia eta eskola.
2. Haurrak hezi edo haurrak hazi? Haurraren garapena ulertzeko moduak: Haurra kulturari egokitu vs. Kultura haurraren beharrei egokitu. Haurraren modelatzea vs. Haurraren auto-erregulazioa.
3. Sozializatzea = eskolatzea?
4. Haurtzarora eta Hezkuntza sistemaren historia laburra.
5. Indarrean dagoen eskola ereduaren gaineko hausnarketa. Harekiko diskurtso kritikoa.
6. Hezkuntza sistema eta ideologia.
7. Haurrak behar duen eskola. Haurraren beharretara egokitutako eskola. Eskola osasungarrien ezaugarriak. Gakoak.
8. Hezitzailearen egitekoa.
9. Haurra erdigune. Bere erritmo, garapen-une eta indibidualtasunarekiko errespetua.
10. Eskola-kontzeptua aldatu nahi izan duten pedagogiak eta pedagogoak. Montessori, Freinet, Freire, Illich, Neill, Steiner...
11. Eskola libre eta alternatibo eredugarriak munduan. "pesta", summerhill...
12. Eskola libreak Euskal Herrian. Proiektu hauetako baten arduradunekiko solasaldia.

Metodologia

Irakaslearen saio teorikoekin batera, taldeko eztabaidak/ hausnarketak/ dinamikak ere izanen du tokia. Gainera, bi orduko atelier praktikoa burutuko da. Eskola alternatibo bateko kideak etorriko zaizkigu euren proiektua aurkeztera.

* Ane ABLANEDO LARRION. Bigarren Hezkuntzako irakaslea. NUPeko irakasle asoziatua. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua.

MINDFULNESS eta TDAH: arreta barrutik lantzen

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Espainiar Estatua, AEBekin batera, TDAHa kudeatzeko medikazioa erabiltzen duten herrialdeen zerrenda-buruan dago. Egia bada ere ikasleak botiken eraginpean dauden bitartean zentratuago daudela, lasaitasuna eta arreta garatzeko beste tresna osagarri batzuk eskaini nahi ditugu, gela osoaren mesederako izango direnak.

Helburuak

TDAH duten ume eta gazteen irakasle eta hezitzaileei ikasle horiekin (eta gela osoarekin) lasaitasuna, kontzentrazioa, autokontrola eta enpatia lantzeko tresnak eskaintzea.

Edukiak

- TDAHa hobeto ezagutu: oinarriak, tratamenduak, eztabaidak
- Mindfulnessa zer den eta nola erabili gelan. Ariketa praktikoak
- TDAHa kudeatzeko bestelako estrategia lagungarriak

Metodologia

TDAHaren inguruko **eztabaidan sakondu** ondoren, Mindfulness-aren **oinarri teorikoa** aztertuko dugu era laburrean, ondoren **ariketa praktikoetara** pasatzenko. Horiek izango dira ikastaroaren ardatza.

*Virginia BELATEGI AZPIRI – **erain** Hezkuntza Integrala.

Komunikazio Ikasketetan graduatua. Arrisku Psikosozialen Prebentziorako goi-mailako teknikaria. Gestalt Terapian eta Talde Dinamikan trebatua, PNLn Master Practitioner eta EFTn trebatua. TREVA Programako trebatzailea. Mindfulness eta Hezkuntza Kontzientean Unibertsitate Espezialista. TDAH eta Ikaste Prozesuen eta Jokabidearen Nahasmenduetan Aditua. Kontsulta psikoedukatioa, Durangon.

* *KOPURU MUGATUA* *

Heziberri 2020 programan Zientziarako kompetentzia garatzeko abiapuntu teorikoak eta estrategia metodologikoak: Lehen Hezkuntza

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Heziberri 2020 programako zientziarako kompetenziaren xedeak kontuan hartuz ikastaro honek egungo eskola praktiken hausnarketa eta estrategia metodologiko berriak planteatu nahi ditu. Horretarako eskolako esku-hartzeak eta aprendizaiak zikloan izango ditu abiapuntu. Jarraian, zientzia modeloak eta modelizazio prozesuak ikutuko dira eta hau posible izan dadin aprendizaien kontestualizazioaren garrantzia. Esku-hartze interesgarri gisa irakasleei indagazio (ikasleak ikertzaile gisa ihardute) proposamen metodologikoa erakutsiko zaie. Azkenik irakaskuntza-ikaskuntza zikloaren euskarria landuko da: kompetentzia zientifikoaren ebaluazioan, ikasleen autoerregulazioa sustatuz.

Norentzat

Lehen Hezkuntzako irakaslegoarentzat.

Landuko diren gaiak

- **Aprentzaiaren zikloa** (Jorba eta Sanmartí, 1994).
- **Modelo zientifikoak eta modelizazioa** (Gilbert, Boulter y Elmer, 2000).
- **Kontestuak eta kontestualizazioa** (Sanmartí, Burgoa eta Nuño, 2011).
- **Indagazioa metodologia aktiboa** (Camaño, 2015; Domènech, 2015).

Metodologia

Metodologia aktiboa erabiliko da, eta oinarri teorikoak ere landuko direnean irakasleen parte hartze aktiboa izango du.

Ikastaroak alde **teorikoa** eta **praktikoa** izango ditu. Lehenengoan, egungo planteamendu berritzaileek plazaratutako kontzeptuen inguruko hausnarketa bideratuko da kasu errealean azterketa eginez. Alde praktikokan, irakasleek kontestualizazioan eta indagazioan oinarritutako esku-hartzeak egingo dituzte.

* **Miren Begoñe BURGOA ETXABURU.** Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila. UPV-EHU; Grup de recerca LIEC Universitat Autònoma de Barcelona.

Gorputzetik hezi eta bizi; gorputza, irakaskuntza prozesuan txertatzen

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Bizi dugun jendartean pentsamenduaren garrantzia gailendu da, gorputzaren eta emozioen kontzientzia eta adierazpenaren gainetik. Baina hezkuntza-prozesuak esanguratsuak izan daitezten, pertsona osatzen duten hiru oinarriak bateratzea ezinbestekoa da; emozioak, pentsamendua eta gorputza.

Ikasturte osoan zehar pentsamendua astintzen ibili ondoren, topaketa hauetan, hezkuntzan lantzen ditugun gaiak gorputzean bizitzea da ikastaro honen proposamena. Eta bestalde, gure eguneroko jardun profesional eta pertsonalean txertatu ahal izango diren dinamika, proposamen, etab. guztiz praktikoak eskainiko dira. Beraz, ikastaroak izaera praktikoa izango duen arren, marko teoriko laburra ere eskainiko da.

Norentzat

Irakasle, hezitzaile, formatzaile eta bere buru-gorputzaren kontzientzia hartu nahi duen edonorentzat.

Metodologia

Biodantza sistema oinarri hartuta, beste hainbat teknika eta ikuspegi ere landuko dira: mindfulnes, pedagogia sistemikoa, yoga eta meditazioa...

* **Elen KORTAXARENA.** Humanitateetan lizentziatua eta Haur Hezkuntzan graduatua. Biodantza Irakaslea haur, gazte eta helduekin.

* *KOPURU MUGATUA* *

Psikomotrizitatea: Aucouturier Psikomotrizitate

Praktikaren proposamena Haur eta Lehen Hezkuntzan

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Haur Hezkuntzako haurra “haur globala” da. Globaltasun hori kontuan hartzen duten metodologiak eta estrategiak sortu behar dira. Ulertu behar dugu nolakoak diren gurekin dauden haurrak eta nola egokitu gure pedagogia eta jarrerak horiek dituzten premia ebo-lutiboei. Psikomotrizitate Praktika saiatzen da erantzun bat ematen horri.

Norentzat

0-6/8 urte arteko hurrekin lan egiten dutenentzat.

Helburuak

Praktika honen zergatia ezagutu. 0-6/8 urteko haurraren garapenean ardatz nagusiak aztertu. Psikomotrizitate Praktikaren proposamena ezagutu. Guzti horretatik abiatuz eguneroko lana aztertu.

Landuko diren GAIAK

Gorputza, mugimendua, ekintza eta jolasaren garrantzia: zergatia. Dependentsiatik autonomiara. Atxikimendutik banaketara eta indibidualtasunera. Psikomotrizitate gela: espazioak eta materialak. Hezitzailearen jarrerak: ez zuzendutako pedagogia, enpatia, entzutea, lagun sinbolikoa, seguritate legea / frustrazio legea. Psikomotrizitate Saioa: 0-3 urteko haurren saioa; 3-6 urteko haurren saioa; 6-8 urteko haurren saioa.

Metodologia

Gimnasioan:

- Saio bibentzialak: mugimendua eta jolasaren bitartez (proposamen irekiak).
- Saioetan: taldean eta mugimenduan, berraurkiketa eta ongizate egoera sentensoriomotri-zetan parte hartu. Norberarengatik besteengana. Sinbolizaziorako bidea bizi.
- Talde handian bizitutakoaren gaineko elkarrizketa.

Gela batean:

- Planteatutako gaiei buruzko elkarrizketa. Hurbilketa teoriko-praktikoa.

* **Alvaro BEÑARAN ARANZABAL.** Pedagogia terapeutikoan lizentziatua. Aucouturier praktikako psikomotrizista, Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea eta Asefop-eko prestatzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak

11

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Arin doa mundua, eta hala dabilta gure buruak ere sarritan: pentsamenduz beteak, joan etorri etengabe batean.

Gaur egun arreta mantentzea gero eta zailago bihurtzen ari den zerbait da teknologia berrien erabileraren ondorio moduan.

Baina arreta landu daitekeen zerbait da. Arreta mentearen muskulua dela dio Daniel Goleman, Hezkuntza Emozionala ezagutzera eman zuen autoreak. Gorputzeko edozein muskulu entrenatu dezakegun bezalaxe, gure mentearen muskulu hau ere garatu dezakegu eta onura dextente ekarriko dizkigu gure egunerokotasunera: kontzentratzea errazago izango da, lasaiago biziko gara, geure barne mundua eta emozioak hobeto kudeatuko ditugu.

Norentzat

Norberaren arreta landu nahi duen ororentzat, eta baita, haurrekin edo gazteekin lan egiten duten horientzat; arreta piztea eta mantentzea beharrezko dutenentzat bere lanean.

Helburuak

- Arreta, kontzentrazioa eta orainean bizitzeko gaitasuna landu.
- Erlaxatzen eta meditatzen ikasi.
- Norberaren izatearen maila ezberdinak: gorputza, mentea, emozioak eta egitearen arteko harremana kudeatu.
- Barne lekukoa indartu eta landu.

Metodologia

Gorputzean eta arnasean oinarritzen diren ariketa sortzaileak eta praktikoak erabiliko ditugu arreta garatzeko. Gorputz Adierazpena, Ioga eta Mindfulness (Arreta Osoa) teknikak sakonduko ditugu.

* **Naiara GORROÑO VITERI.** Komunikazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogian Masterduna Bartzelonako Unibertsitatean. Yoga irakaslea. Mindfulness bideratzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Nola saihestu eta kudeatu eguneroko gatazkak

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Jaso logela! Itzali telebista! Mugitu, berandu goaz!

Utzi aldamenekoarekin hitz egiteari! Ixo eta basi lanean! Laguna ez da jotzen! Niri ez hitz egin tonu borretan!

Sarritan, guraso eta hezitzaileak gauza bera 100 aldiz esaten dugun inpresioa izaten dugu, tonu guztietan, kasu egin baino lehen.

Aldi berean, zailtasunak izan ditzakegu gauza bat debekatzeko orduan, exijitzeko orduan... "Ez" esatea kostatzen egiten zaigu edota gehiegi esaten dugu.

Zailtasun asko ditugu autoritarismoaren, xantxia eta penaren artean oreka edo erdiko neurria aurkitzen. Eta sarritan gaizki ulertuak sortzen dira...

Igeri egiten, gidatzen, sukaldatzen ikastea normalizatzen hartzen dugu... Gure autoritatea mantendu, autoritarioa izan gabe. Gure seme-alabekin komunikatzen ere. Ikas daiteke!

Nola hitz egin gure ikasle/seme-alabek entzun diezaguten...

Nola entzun hitz egin dezaten...

Norentzat

Guraso, hezitzaile edo interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Gure hitz egiteko moduan erreparatu eta honek dituen ondorioetan.
- Marshall Rosenberg "Komunikazio Ez Bortitzaren" modeloa aurkeztu.
- Zigor, xantxia eta mehatxuen alternatibak azaldu.
- Trebatu ohiko egoeratan.

Edukia

- Zer egiten dugu gatazka egotea errazten duena?
- Jokaera desegokiaren aurrean zer? Haurrak nola ikasiko du? Zer daukagu ikasteko eta aldatzeko?
- Nola jarri mugak mehatxu, zigor eta xantxiarik gabe?
- Nola jaso haurraren amorrua? Haurraren osasun emozionala nola zaindu?
- Guraso eta hezitzaileen amorrua. Gure ezintasuna eta amorrua benetako indar eta potentzian eraldatzeko erabili dezakegu.
- Haurraren eskaera eta beharrei erantzunez ez ote dugu gehiegi babestuko? Nola lagundu bere autonomia?

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren ariketa praktikoan bidez, guraso eta hezitzaileek eguneroko egoerak aztertu eta sakondu al izango dituzte.

* **Nerea MENDIZABAL.** Psikopedagogo, haur masajeko hezitzailea eta komunikazioan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Entrenamendu Mentalaz eta Ametsak aztertuz, zoriontsu!

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Produkzioa gero eta gehiago baloratzen den gizarte honetan, gizakion benetako osotasunaren prestakuntzan dauzkagun hutsuneak nabarmentzen dira: konfiantza falta, beldurrak, muga estuak, noraeza, pertzepzio ez zuzenak, gure buruarekiko eta inguruarekiko sinesmen ez zuzenak, etab.

Entrenamendu Mentaletik eta ametsak ematen diguten informazioarekin barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, helburuak argitu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratu du, bizitza kalitatea ikaragarri hobetuz eta ingurukoei hobetzen lagunduz. Ah! eta bizipozez gainezka, gehiago eta hobeto produzituz.

Norentzat

Pertsonek garapenera zuzendutako ikastaroa izanik, irakasle, guraso zein bestelako profesionalak parte hartu dezakete.

Helburuak

- Psikologia Positiboa, PNL, Sofrologia, Kontrol Mentala, Ho' oponopono, Berez dena maitatu, Erabateko Barkamena, Mindfulness eta beste hainbat barru lanketa tresnen eraginkortasuna bizi.
- Ametsak ulertu eta lantzen ikasi (Gestalt, Gayne Delaney, etab).
- Gauzez zein egunez, norbere baliabideen ezagutza hobetu, zoriontsuak izateko erabili eta emozionalki garatzeko tresnak landu.

Edukiak

- Meditatzeko egoera nola lortu.
- Indarberritzeko ariketa (edozein egoeratan gure burua indartzeko).
- Norbere baliabideen ezagutza errazteko tresnak.
- Norbere helburuak lortzea errazteko tresnak.
- Norbere buruan sinistu eta konfiantza lantzeko tresnak.
- Jendaurrean gustura moldatzeko tresnak (kontzertuak, hitzaldiak, bilerak, azterketak, proiektu aurkezpenak, oposizioak, etab.)
- Maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnak.
- Egunerokotasunean gertatzen diren gatazkak baretu eta konpontzeko tresnak.
- Errendimendu intelektuala hobetzeko tresnak (memoria, kontzentrazioa, etab.).
- Errendimendu fisikoa hobetzeko tresnak.
- Ametsak guretzako daukaten informazio zuzena bizi eta ulertzeko tresnak.
- Bizitza hobetzen laguntzeko ametsen aukera.

Metodologia

Ariketak eta kontzeptuak praktikatu eta barneratu ondoren, sortzen diren galderak erantzungo dira. Zenbaitzutan, ariketa praktikatu ondoren azalduko da. Beste batzuetan azaldu ondoren praktikatuko da. Ikastaroa erabat partehartzailea da. Ikastaroaren helburu nagusia, eskainitako informazioaren onura, praktikak ekarriko digula ohartzea da.

* **Urko AROZENA.** Musikeneko irakaslea. Psikologia Positiboa, Kontrol Mentalean aditua.

Dramatizazioa hezkuntza sistematan

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Bere garrantzia euskararen erabileran eta pertsonen garapenean

Dramatizazioa haurren garapenerako ezinbesteko tresna da hainbat arlo lantzeko: norberaren mugak ezagutzeko, espontaneotasuna indartzeko, lortu gaitzeko, ahotsa era egokian erabiltzeko,.. Garrantzi hau areagotu egiten da hizkuntza komunikazioa euskara denean, aukerak zabaltzen direlako modu ez “akademizista” batean naturaltasunez erabiltzeko.

Norentzat

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.

EGITARAUA

- 1. eguna:**
 - a) Dimentsio antropologikoa (Munduan eta Euskal Herrian) eta Haur antzerkiaren beharra
 - b) Ariketa dramatikoak (Aurkezpen eta ezagutza jolasak /Klown jolasak)
 - c) Antzerki ebolutiboa etapaka eta Jolas Dramatikoaren elementuak
 - d) Ariketa dramatikoak (mugimendua eta espazioa / Mimoa)
- 2. eguna:**
 - a) Didaktikaren metodologia eta Programazioak
 - b) Trebetasun zuzenak eta zeharkakoak
 - c) Ariketa dramatikoak (Txokoen teoria eta praktika / Itzal beltzak)
 - d) Testugintza eta gidoigintza
- 3. eguna:**
 - a) Talde lana: programazioa, justifikazioa eta ebaluazio-sistema
 - b) Antzezlanen egokitzapenak / abesti dramatizatuak
 - c) Ariketa dramatikoak (Ipuingintza / Txotxongiloak)

* Rita NAVEIRA eta Koldo ZELESTINO. “Kurkuluxetan” antzerki eskolako irakasleak.

* *KOPURU MUGATUA* *

Motibatu nahi?

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Desberdinak gara denok eta uneoro desberdin sentitzen gara. Aritu ere, ezberdin aritzen gara. Hiru motibazio izan ohi ditugu bizitzan aurrera egiteko: bidearen amaieran saria bistaratzea, zigor edo mehatxuek behartuta aritzea edo automotibazioa. Azken hau da, zalantzarik gabe, eraginkorrena, baliagarriena eta bakoitza gehien asebetetzen duena.

Norberak bere burua motibatzea ez da beti erraza. Baina bizitzan gauza gehienak bezala, ikasi daiteke eta horixe da ikastaro honen helburua: automotibatzen eta motibatzen ikastea.

Motibazioaren inguruko hausnarketa praktikoa da egingo duguna. Pertsona bakoitza zein egoera edo unetan dagoen baloratzeko tresnak ezagutuko ditugu, eta, horren arabera, zein baliabide edo estrategia erabili erabakitzen ikasiko dugu. Bai gudan, zein besteengan. Bakarka edo taldean.

Egunerokotasunean erraz aplikatu daitezkeen ideia eta abilezia praktikoak landuko ditugu, erabiltzen dugun hizkuntza edota jarrera sortzaileari erreparatuko diogu. Besteen ideiak onartu eta balioesteari, galdera interesgarriak egiteari edo eta inguruko ohiturak zalantzan jartzeari arreta jarriko diogu.

Motibazioa barne indarra da. Norberaren esku dago ilusioa piztea eta su hori mantentzea. Motibatzen ikasi nahi?

*Nerea REDONDO OTAMENDI. Coach eta Formatzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Ipuinak kontatzen IRUDI-LIBURUAK lagun, haurren arreta mantenduz eta elkar entzuteko espazioa zainduz

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Ipuinak kontatzeko modu desberdinak dauden arren, seguraski, irudi-liburuen bitartez egiten dena izango da erabiliena. Zoritxarrez, oso hausnarketa gutxi eskaini izan diogu kontatzeko modu horri, **elkar entzuteko espazioa zainduta**, haurren arreta mantendu dadin kontaktaren hasieratik bukaeraraino.

Norentzat

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan dabiltzan hezitzaileentzat, batik bat.

Landuko diren gaiak

-**IRUDI-LIBURU** desberdinak sailkatu.

-**IRUDI** liburuekin kontatzeko estrategiak gureganatu:

-Irudia eta hitzaren arteko harremana.

-Kontaktaren erritmoa.

-Testu egokitzapena: ahozkoa hurbiltzeko estrategiak.

-Gorputzari dagozkionak: ahotsa, keinuak, imintzioak, begirada . . .

-Jarrerari dagozkionak: konfiantza, presentzia, sinesgarritasuna . . .

-**Haurrengan ARRETA** mantentzeko estrategiak landu:

-Erlaxazioa / Kontzentrazioa / Inprobisazioa /Entzuketa kontzientea.

-**ELKAR ENTZUTEKO ESPAZIOA ZAINDU**, egoera erritual desberdinak lagun.

Metodologia

Jarduera praktikoez gain, kontatzeko aukera ere izango da.

Obarra: gomendatzen da parte-hartzaile bakoitzak ekartzea irudi-liburu batzuk (Kontatzen erabiliak izan direnak) / Esterila (lurrean etzatekoa) / Arropa eroso.

* **PELLO AÑORGA.** Ipuin kontalaria, idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea.

* **KOPURU MUGATUA** *

Musikaren bizipena eta erabilera

Haur Hezkuntzan

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Haur Hezkuntzako gelan nahitaezkoa da musikaren bizipena eta erabilera ikaslearen garapen osoa lortzeko, soinuak, isiluneak eta musika-lanak norberaren autonomia pertsonala, inguru-nearen ezaguera eta komunikatzeko tresna baliagarriak dira eta.

Haurraren entzumena, adierazpena eta sormena lantzeko egingo ditugun jarduera praktiko, labur eta desberdinetan gorputza, ahotsa eta tresnak erabiliko ditugu, giro musikal, ludiko eta afektibo batean.

Beraz, mugimendua eta dantzak, ahotsa eta tresnak erabiliko ditugu egun horietan musikaz blai geratzeko, musika bizi eta egiteko!

Norentzat

Haur Hezkuntzako irakasleentzat eta hezitzaileentzat.

Soinua eta musika-lanak hezkuntza baliabidetzat erabili nahi dituen edonorentzat.

Helburuak

- Haur Hezkuntzako gelan entzumena, adierazpena eta sormena lantzeko soinua eta musika-lanaren bidez tresnak ematea.
- Gorputza, ahotsa eta tresnak irakaskuntzako baliabide gisa erabiltzea.
- Hezitzaileei ikasleekin lantzeko gaietarako abiapuntuak ematea.

Edukia

- Soinuaren ezaugarri batzuk: erritmoa, altuera, intentsitatea, tinbrea, forma. Isilunea.
- Mugimendua eta dantzak, erlaxazio ariketak, ahotsaren erabilera egokia (arnasa eta inpostazioa, abestiak), tresna desberdinak (gorputza-perkusioa, kotidifonoak, “boomwhackers” ize-nekoak, perkusio txikia, plakadunak).
- Beste baliabide batzuk: gorputz-perkusioa, ipuin musikalak, musikogramak.

Metodologia

Ikastaroa nagusiki **praktikoa** izango da.

Erabilitako teoria, praktikan aplikatutakoa kokatzeko baliogarria izango da.

Jarduerak laburrak izango dira, bakarkakoak zein taldekoak ere bai.

***Ana URRUTIA**. Goi-mailako musika irakaslea, doktorea eta EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako musika irakaslea.

* **KOPURU MUGATUA** *

Euskal mitologia eskoletan

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

EUSKAL MITOLOGIAREN TRANSMISIOra **PROPOSAMEN**a: **zergatik, ZER eta NOLA**

Maiz, ipuinak kontatzen ditugunean, euskal mitologiako pertsonaiak eta numenak aipatzen ditugu, sarritan oso ongi nor den eta haien arteko harremanak zeintzuk diren jakin gabe.

Hala ere, badakigu, eta horrela adierazten dugu gure eginkizunetan, *euskal mitologia euskal kultura barnean*, askotan gizartearen oinarrian, kokatzen dela, eta ezagutza horren transmisioa ezinbestekoa dela.

Ikastaro honen xedea, Mariren mundua ezagutzeko bidean ibiltzea da, gero hurrei transmititu ahal izateko. Alde batetik, *euskal mitologiaren pertsonaiak*, eta bestetik, *haien arteko harremanak eta antolamendua* ezagutzera emango dira ikastaro honetan.

Horretaz gain, euskal mitologiaren transmisioan lanean aritu eta jarraitzeko, *ekintza zehatzak proposatuko dira ikastaro honetan*, euskal mitologia den altxorra transmititzeko zer eta nola azaltzeko proposamen konkretuak eskainiz.

Norentzat

Bere lan-jarduera barnean euskal mitologiaren ezagutza transmititu nahi dutenentzat (irakasleak, hezitzaileak, begiraleak, etab.), baita euskal mitologia maite duen orentzat ere.

Helburuak

- Euskal mitologia transmititzeko zergatia jorratzea.
- Euskal mitologiaren pertsonaia nagusiak eta haien arteko harremanak eta antolamendua ezagutzea.
- Transmisio-irakaskuntzarako proposamen zehatzak lantzea.

Metodologia

Metodologia praktikan oinarritua bada ere, ezagutza teorikoak ikusiko ditugu era arin eta dinamikoan.

* Ixabel MILLET. Kontalaria, idazlea eta formatzailea. Hendaian kokaturiko Bi'Arte elkarteko zuzendaria.

* *KOPURU MUGATUA* *

DALCROZE ERRITMIKA metodologiara gerturatzea

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Jaques-Dalcroze Erritmika (Rythmique Jaques-Dalcroze edota Dalcroze Eurythmics) musika-irakaskuntzarako munduan aitoren handiena daukan eta zabalduen dagoen pedagogia aktibotarikoa da. XIX. mendean hondarrean izena ematen dion gizonak berak Genevan (Suitzan) metodologia hau garatzeari ekin zion, eta ordutik XX. mendean zehar mundu zabalean hedatu eta herrialde ezberdinetan Dalcroze elkarte eta profesional asko ugaltu dira (Suitza, AEBak, Japonia, Australia, Belgika etab.). Euskal Herrian sortze bidean aurkitzen da.

Norentzat

Musika irakasle edota mugimenduaren aplikazio jakin bat bilatzen duen ororentzat zuzendua.

Edukia

Musika eta irakaslearen esanak jarraituz, hartzailera musika bera edo ezaugarri konkretuak integratzen joaten da, hasieratik maila intelektualera jo beharrean lehenik musika biziaraziz eta sentiaraziz, ondoren integratuz eta zentzua emanez, eta azkenik aurrez egindako hori guztia musika lengoaiaren kodifikazio arruntera (idazkera eta kontzeptuetara) eta ulermenera eramanez.

Pilota, uztai, klabe, pandero, soka... eta nahi beste elementuren erabilera eginez, eta sarri psikomotorizitate kutsua eduki dezaketen ariketak burutuz (polirritmiak oin eta eskuen artean, lateralizazioaren lanketa, objektuak eskuetan edukiz mugimendu sormena lantzea, espazioaren kudeaketa...), irakasleak zuzenean sortu ohi duen musikarekin erabateko konexioan era guztietako musika edukiak lantzen dira: izaera erritmikoa dutenak, izaera melodikoa dutenak, izaera harmonikoa dutenak, esaldi luzera edo formari dagozkionak, edota dinamikari dagozkionak...

Dalcroze Erritmikak musika era oso atsegin eta ludiko batean barneratu eta ikasteko aukera paregabea eskaintzen du eta adin guztietarako balia daiteke, txikienetatik hasi eta 3. adineko pertsonenganaino.

Metodologia

Metodologia honen ezaugarri nagusia musika eta mugimenduaren artean egiten den lotura estua da. Gorputzaren eta espazioaren erabilera erabatekoa eginez ikasleari musika sakonki biziarazten zaio. Horretarako, irakaslea lortu nahi duen helburua pianoan zuzenean inprobisatuz jotzen duen musikaz baliatzen da.

Izaera

Ikastaro honetan alderdi praktikoa izango da nagusi (Dalcroze Erritmika bidezko musika klaseak jasoko dira), baina azalpen teorikoak ere jasoko dira, baita bideo batzuk ikusi eta aztertu ere.

***Beñat RALLA YUSTA.** Herri Lanetako Ingeniari Tekniko gisa lanbidea utzi eta Musikaren Pedagogia ikasketak burutu ostean, iazko ekainean Genevako Goi-mailako Musika Ikastegian Dalcroze Erritmikan gradu eta master ikasketak eskuratu zituen. Egun Lehen Hezkuntzan musika irakasle ari da eta proiektu artistiko baten sormen prozesuan murgilduta dabil.

10 gai, 10 plastika proposamen

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

- *Gabonak datoz! Zelan apainduko dugu gela?*
- *Zelan landu sentimenduak plastika txokoan?*
- *Gelako maskota egiteko, ideiarene bat?*

Horrelako galderak behin baino gehiagotan entzuten dira irakasle getetan. Berdin da proiektuak lan egin zein beste metodologiaren bat erabili, azkenean, guztion kezka antzekoak izaten dira. Goazen ba, kezka horiei erantzuna ematera!

Norentzat

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko irakasleentzat bereziki. Baita ere, adin horretako umeekin ari diren begirale zein gurasoentzat.

Helburuak

- Ondo pasatu eta sormena landu.
- Plastika teknika desberdinak ezagutu.
- Material berriak ezagutu.
- Plastika mundua beldur barik ikusi.
- Esperientziak elkarbanatu.

Metodologia

Ikastaroa guztiz **dinamikoa** eta **praktikoa** izango da, **tailer** bat.

Ikasturtean lantzen diren **10 gai** (itsasoa, udaberria, eskola, sentimenduak...) abiapuntu gisa hartuko ditugu eta gure egunerokoan topatzen diren materialekin (platerak, kutxak, tutuluak...) **10 proposamen** desberdin aurkeztuko ditugu. Lan horiek hainbat motatakoak izango dira (jostailuak, apaingarriak, txotxongiloak...) eta **erraz egitekoak**.

Amaitzeko, buruak martxan jarriko ditugu eta egindakoari bizitza emango diogu abesti zein istorio-rioren bat antzetzten, hala, egindako lanaren balioaz ohartuko gara.

* Alazne UGARTETXEA. Haur Hezkuntzako irakaslea eta umeentzako tailerretan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Yogarako sarrera

**Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00**

Ikastaro honetan 18 yoga asanarekin (postura, jarrera) arituko gara. Helburua da gorputza lantzea, erne eta lasai agertzeko prestatzen dugun bitartean.

Postura bakoitzak zenbait etapa edo fase ditu. Modu horretan, bai hasten dagoen ikaslearentzat zein trebe eta asko aritutakoarentzat egokiak eta aproposak bihurtzen dira.

Hatha Yoga klasikoko milaka asana edo jarreretatik, ondorengo 18 asanak eta euren aldaera batzuk aukeratuko ditugu. Hemezortzior bitartez gorputz osoko gune guztietan lortzen da eragina modu eraginkorrean. Gainera, yoga ikasten jarraitu nahi duenak bidelagun izango ditu etorkizunean, osagarri izango baititu bere yoga maila berrietan. Beraz, hasteko metodori egokiena 18 asanak praktikatzea da.

Jarrerak kontzentrazio mentala lortzen laguntzen dute eta, aldi berean, baita gure izaeraren alderdiak hobeto integratzen ere. Gogoia kontrolpean edukitzearekin konparatuz gero, erraz samarra da gorputz fisikoa menperatzea. Posturok lasaitasun eta erneasun egoera eragiten dute. Barruko organo eta guruinei ematen diete masajea eta gorputz psikikoa egonkortu. Oso eraginkorrak dira hainbat nahaste funtzional edo gaixotasun sendatzeko edo ekiditeko; hala nola, diabetea, arnasketa arazoak, hipertentsioa edota desoreka emozionala. Beraz jarrerok gizateriaren miseriarik arruntena desagerrarazi edo sendatu dezakete; hots, ondoeza edo “osasu eskasa”.

Norentzat

Normahi zein edonorentzat.

Landuko diren gaiak

18 asana.

1. Agur egiteko jarrera edo asana . 2. Eguzkia gurtzekoa. 3. Sorbalden gainekoa. 4. Arrainarena. 5. Zutik dagoen kurriloarena. 6. Arkuarena. 7. Alderantzizkoa. 8. Arrain erdiarena. 9. Goldearena. 10. Sugearena. 11. Ikurrarena. 12. Gurpil erdiarena. 13. Jesarritako kurriloarena. 14. Matxinsaltoarena. 15. Gogortasunarena. 16. Tximistarena. 17. Triangeluarena. 18. Bake eta erlaxazio osoko jarrera edo asana.

Metodologia

Asana edo postura bakoitza aurkeztu eta bertan landuko dugu. Kontuan hartu beharrekoak azaldu ostean, posturok modu osagarrian antolatuko ditugu, bakoitzaren ostean erlaxazioa eta nasaitzea erraztuz. Azalpen errazen bidez jarraibideak erakutsiko ditugu. Baita ere posturon onura ugariak adieraziko dira. Ariketon jardunean edo praktikan jarraitu beharreko hastapen eta printzipioak azalduz eta argituz joango gara. Beraz ikastaro honen izaera guztiz praktikoa izango da. Jantzi erosoekin etortzea gomendatuko da.

* **Mikel AGIRREAZKUENAGA.** Bizkaiko Irakasleen Eskola, EHU-UPV. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saila.

Yoga eta Kontzentrazio Teknikak eskolan

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Zoriontsu izaten ikasteko tresnak

Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispertsioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desegokiak eta abar presente baitaude.

Guzti horrek irakasleen osasunean eragin dezake, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotuz (urduritasuna, lo egieko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, etab.).

Yogako hainbat teknikak eragin horiek arindu eta bideratzen dituzte. Teknika horiek ikasleekin erabiltzeko aukeraturata daudenez, beraien kontzentrazioa handitu egiten da, lasaitasuna ezarri, adimenaren gaitasunak bizkortu, portaera hobetu eta ikasketarekiko jarrera baikortu egiten da.

Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu, adimena lasaitu eta kontzentratzen ikasi.
- Arnasketak, nerbio sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenez jardun eta teknika horiek behar diren momentuetan erabiltzen ikasi.
- Adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak ikasi, horiek ikasleekin landu ahal izateko.
- Erlaxazio sakonaren bitartez, fisikoki eta psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ikasi.
- Horren guztiaren ezagutzaz eta praktikaz, zoriontsuago izaten ikasi.

Edukiak

- Osasuna indartzeko bost puntuak.
- Zoriontasuna eta egoera horretara iristeko baliabideak.
- Arnasketa prozesua eta bere eragina emozioetan.
- Emozioak askatzeko teknikak. EFT.
- Kontzentrazio ariketak.
- Bisualizazio teknikak.
- Erlaxazio sakona.
- Sintesia: ikasleekin egiteko erlaxazio, atentzio eta bisualizazio ariketak.

Metodologia

Yogak izaera esperimentalak daukenez, tailerra hainbat teknika erabilgarriren esperientzian oinarrituta dago.

*Marina PINTOS MARTIKORENA. Pianojole, musika irakasle eta yoga irakaslea. Azken urteotan Hezkuntza Elkarteei egokitutako formakuntza tailerrak zuzentzen ditu.

* *KOPURU MUGATUA* *

Koplagintzaren erabilera didaktikoa

Haur Hezkuntzan

23

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Alde batetik, errutinak erabiltzen dira gure eguneroko jardueretan Haur Hezkuntzako bigarren zikloan: “Gaur nor da makinista?”, “Zein egun da gaur?”, “Nolako eguraldia daukagu?”, “Zenbat neska-mutil daude gaur gelan?”, “Nor dago gaixorik?”; edo, atsedenaldira joateko unea heldu denean, “ilaran jarrita: goazen patiora!”, edo, bazkaltzera joan aurretik, “eskuak garbitu behar dira”; edo, “etxera joateko unea heldu da”. Eguneroko ekintza guztietarako guk sortutako koplak izango ditugu langai. Horrez gain, gure ikasle baten urtebetetze eguna denean, betiko “zorionak zuri” delakoa baino zerbait jatorragoa, berezia prestatu ahal dugu. Oparirik politena guk sortutako kanta bat, zergatik ez?

Beste aldetik, ipuinak erabiltzen ditugu gure geletan; ipuinak kontatu, irakurri edo antzetzten ditugu, baina ia inoiz ez dugu kantatzen. Horregatik, ipuinetan kantu bidezko sekuentzializazio didaktikoa landuko dugu, ipuinei etekin handiagoa ateratzeko asmoz. Euskarari lagungarri gertatuko zaio, metodologia honen bidez haurrak esan behar dutena esateko gai izango direlako, gauzak esaten modu desberdinean trebatuko baititugu; kantuz, hain zuzen ere. Horretarako, irakasleak ez gara zertan bertsolariak izan, baina Haur Hezkuntzarako koplak prestatuko ditugu aldeztu aurretik eta gelara goazenean abestu egingo dugu, geure gelako haurrekin konplizitatea bilatuz eta euren hizkuntza gaitasuna landuz.

Norentzat

Gai honetan interesatuta dagoen edonorentzat, eta, bereziki, Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren 4 eta 5 urteko haurren geletan lanean dabiltzan tutoreentzat edo irakasleentzat, baita Irakasle Eskoletako ikasleentzat ere.

Edukia

- Ahozkotasuna
- Bertsolaritza/ bertsogintza eta Koplaritza/koplagintza edukien desberdintasuna.
- Hizkuntza gaitasuna
- Aurrekariak

Metodologia

Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako, 4 eta 5 urteko umeen geletan lantzeko kantu bidezko metodologia, eguneroko errutinetan eta ipuinen sekuentzializazio didaktikoetan bereziki txertaturik. Izan ere, Euskal Herrian gaur egun ezaguna den doinutegiaz baliatuko gara.

* Txetxu PARDO. UPV/EHUko hizkuntza eta literaturaren didaktika saila
Bilboko Irakasle Eskolan.

Gure imaginarioa kantagintzaren bitartez: eskoletan lantzeko kontzeptuak

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Literaturaren eta musikaren elkarreraginetik sortutako kantek euskaldunongan izan dute eraginaz.

- Zelan kantatu dute gure idazle eta musikariek Euskal Herrian?
- Zein eragin (izan) dute idazle eta musikarien artean sortutako kantek euskaldunon imaginarioan?
- Zein alde dago Historia liburuetan erakusten digutenaren eta idazle eta musikarien artean sortutako kantek kontatzen dutenaren artean?
- Kantetatik zein eduki dira eskoletarako baliagarri?

Galdera horiei guztiei ikastaro/taillerrean parte hartuko dugunon artean erantzuten ahaleginguduko gara. Horretarako, zenbait kantari eta musika taldek kantuetarako erabili dituzten testuak eta kantari eta poeten arteko harremanak aztertuko ditugu: idazleak aurkeztuko ditugu, musikariak, tesuingurua eta ondorioz Euskal Herriaren historia, Euskal Herriaren bilakaera kulturala, soziolin- guistikoa eta politikoa hausnartuko ditugu.

Halaber, idazle eta musikarien elkarreraginetik ondutako kantetan jorratzen diren kontzeptuak (identitatea, lurraldetasuna, maitasuna, askatasuna, galera, adiskidetasuna...) erauziko ditugu eskoletan zelan erabili proposatzeko.

Norentzat

Literaturazaleentzat, musikazaleentzat, kulturazaleentzat, hezitzaile zein irakasleentzat...

Helburuak

- Idazle eta musikarien arteko harremanetik sortutako kantagintza aztertzea.
- Euskal Herriaren historia sortzaileen ikuspegitik hausnartzea.
- Kantagintzak euskaldunon imaginarioa eraikitzerakoan duen garrantziaz gogoeta egitea.
- Kantagintzaren funtzioaren bilakaeraren ezaugarriez eta transmisioaren garrantziaz jabetzea.

Edukiak

- Idazle eta musikarien artean sortutako kantagintzaren historia.
- Kantagintzaren eta literaturaren bilakaera historikoa.
- Kantagintzak euskaldunon imaginarioan izan duen garrantzia.
- Eguneroko bizimoduan kezka gai ditugun kontzeptuei kanten bidez egindako ekarpena.
- Euskal Herriaren historia.

Metodologia

Idazleak eta musikariak aurkeztuko dira. **Kanta gehienak zuzenean joko dira.** Zenbait kanta grabazioetatik entzungo dira. Kantak aztertuko dira, bai letra bai musikari dagokionez.

*Rafa RUEDA. Musikaria, kulturgilea, literaturazalea...

*Gotzon BARANDIARAN ARTEAGA. Filologoa, idazlea, musikaria, kulturgilea...

Artearekiko hurbilpena eta erabilera

Lehen Hezkuntzan

25

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Arte Lengoia norbere ezagutza, konfiantza eta autoestimua garatzeko tresna erabilgarria izan daiteke. Komunikazioa eta pentsaera, egitean ere ematen da eta horretarako bakoitzak duen sormena eta irudimena deskubritu eta garatuko dugu. Erakargarriak eta disfrutatzen jarduerak izango dira, geroago Lehen Hezkuntzako hurrekin klasean praktikan jartzeko.

Beste aldetik, museoko artelanak hurrekin nola ikusi eta landu ditzakegun ikusiko dugu, hau baliabide interesgarria baita klaseko gai ezberdinak lantzeko.

Norentzat

Lehen Hezkuntzako irakasle eta hezitzaileentzat.

Artea modu pertsonalean edota taldean landu nahi duen edonorentzat.

Helburuak

- Artearekiko gustua garatzea Lehen Hezkuntzako ikasleengan.
- Sormena, irudimena eta adierazpena lantzea arte lanaren bidez eta horretarako tresnak ematea.
- Artea norbere ezagutza garatzeko eta komunikazio tresna bezala erabiltzea.
- Lehen Hezkuntzan dauden hezitzaileei artea eta museoko artelanak lantzeko abiapuntuak ematea.

Edukia

- Ikus lengoaiaren osagaiak ezagutu: marra, koloreak, ehundurak, formak, konposizioa,...
- Artearekiko hurbilpena: nola landu museoetako artelanak.
- Artea erabili bai gu bai gure ingurunea ezagutzeko.

Metodologia

Ikastaroa **gehienbat praktikoa** izango da. Egingo ditugun jarduerentzat baliogarriak diren arte irudiak eta adibideak ikusiko ditugu. Jarduerak bakarka eta taldekoak izango dira.

* **Iratxe LARREA.** Artista plastikoa, doktorea eta EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Arte Hezkuntzako irakaslea da.

* **KOPURU MUGATUA** *

**Uztailak
4, 5 eta 6**

DONOSTIA

BULLYINGa eta bizikidetzaz

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.

9:00-14:00

Biolentziak, indarkeria matxistak, etxeko bortizkeriak, lanekoak, politikoak, aisialdiko indarke-riak, eskolakoak... izan harremantzeko-bide gisa edo izan per-tsonen arteko gatazkak konpontzeko baliabide, ondorio mingarri eta suntsigarriak ditu. Batzuetan ageriago, gehienetan izkutuago, esta-tistikoki, ia eskola guztietan gertatzen den egoerak dira bullyingarena edota ziberbullyingarena.

Uztailak 4, astelehena

9:15-11:30 **Bullyinga eta Cyberbullyinga: arazoaren izaera, ebaluazioa eta esku hartzeko proposamenak.**

Bullyinga eta cyberbullyinga dakarten jokabideak nolakoak diren argituko da, bullyingarekin eta cyberbullyingarekin harremana duten ikasleen portzentajeei buruzko informazioa emango da, bik-timak eta erasotzaileak identifikatzen laguntzen duten erremintez hitz egingo da, eta esku-hartze psiko-hezitzaile baterako proposamenak egingo dira.

*Maite GARAIGORDOBIL. EHUko psikologia doktorea.

12:00-14:00 **Bullyinga: ikasi ahal izateko desikastearen beharra.**

Errealitate gordin horren inguruan, hezkuntza eremuan badira oraindik zenbait uste, egoera, aurreiritzi eta egitura erabat oztopatzen dutenak giza erantzukizunean eta profesionaltasunean oinarritutako hezkuntza esku-hartze sistemikoa garatu ahal izatea. Horiek ezagutzea eta jazarpena hezkuntza eremutik ateratzeko hautua egitea ezinbesteko aldagaiak dira bullyingari aurre egiteko.

*Aitor ALBIZU. Durangoko Berritzegunea.

Uztailak 5, asteartea

9:00-14:00 **Bullyingari aurre egiteko hezkuntza esku-hartzea: esku-hartze maila desberdinetan oinarritutako proposamen sistemiko-ekologikoa.**

Bullyingaren errealitate konplexuari ahalik eta berme handienarekin ekiteko esku-hartze sistemi-koa da egokiena. Horretarako, ezinbestekoa da eskolak hezkuntza komunitate bezala aritzea eta partaide (eragile) guztiei dagokien lana ardatzea bullyinga gure egunerokotasunetik desagerraraz-teko konpromisoan.

*Aitor ALBIZU. Durangoko Berritzegunea.

Uztailak 6, asteazkena

9:00-14:00 **Bullyingari aurre egiteko hainbat ikastetxetako esperientzia.**

Pedagogia Sistemikoa ikasgelan

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.

9:00-14:00

Pedagogia Sistemikoak hezkuntza errealitate zabala hartzen du bere baitan, eta hezitzailearen jarreran jartzen du arreta berezia. Pedagogo Sistemikoak ikaslearen errealitatea bere osotasunean hartzen du, dena delako abiapuntua onartuz. Honela, hezitzaileak ikasgelan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) “dagokion lekua hartzen duenean” aukera ezberdinak irekitzen zaizkio.

Norentzat

Hezkuntza komunitatean diharduten profesionalentzat, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenarentzat, gurasoentzat eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona ororentzat.

Landuko diren gaiak

- Pedagoia Sistemikoa: ikuspegi sistemikoa eta ordenaren txertaketa.
- “Zer da dagokidan lekuan egotea?”. Sistema guztiek berezko dituzten barneko hurrenkerak irizpideak.
- Sistema ezberdinak. Familia eta eskola. Familian kokatzearen garrantzia.
- Ikasle bakoitzaren oinarriko beharrak.
- Hezitzaileak bere ikasleen abiapuntua ezagutzeko baliabideak.
- Ikasleen eta hezkuntza komunitatearen aniztasuna, jatorria eta testuingurua.
- Hezkuntzako profesional gisa, “Zein da nire errealitatea, zeintzuk dira nire funtzioak, ardurak eta nire mugak?”
- Elkarrizketak familiekin, protokoloa.
- “Zer da autoritatea izatea?” Autoritatea, sistemaren arduratik eta ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzetik.

Metodologia

Gaitegia garatzeko azalpenak modu **teorikoan zein praktikoan emango dira**, eta dinamikak proposatuz egingo da. Praktika konketuak banaka, talde txikitik eta talde osoan. Ikastaroak izaera **teoriko-praktikoa** izango du.

***Aitziber ESNAOLA ARRIBILLAGA**. Titulazior Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua. Egun Hezkuntza Proiektu “alternatibo” batean dihardu lanean.

***Larraitx MENDIZABAL HUITZI**. Titulazior Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakasle (EHU), Psikoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikoa, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua.

* **KOPURU MUGATUA** *

Adimen Anitzak eta Autoestimua; motibazioaren osagai

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Ikastaro honetan, Howard Gardnerren “Adimen Anitzak” teoriari helduko diogu, eta hezkuntza paradigma aldatzearen beharraz jabetuko gara. Pertsona orok, gu-txienez 8 adimen mota ditugula jakitearekin batera, alde batetik, gure autoestimuari bultzada bat emango diogu, denok baikara argiak edo trebeak zerbaitetan, eta bestetik, konturatuko gara, era desberdinetan landu eta hobetu ditzakegula zailtasun gehiago aurki ditzakegun arloak. Beraz, norberaren adimen nabarmenak ezagutzeko aukera izango dugu ikastaro honetan, eta honi ahalik eta etekin handiena aterako diogu beharrezkoak diren baliabide edo estrategiak ezagutuz. Hemen ikasiko duguna ikasleekin aurrera eramaten badugu, ikasleen motibazioan eragin positiboa izan dezakegula ikusiko dugu.

Norentzat

Hezkuntzan lan egiten duen edonorentzat, hezkuntzan lan egin nahi dutenentzat eta baita teoria hau sakonago ezagutu nahi duten guztientzat ere.

Gaiak

Adimen Anitzak, norberaren adimenak, autoestimua, baliabideak.

Metodologia

Ikastaro teoriko-praktikoa izango da. Baina batez ere praktikoa izanen da, hainbat ekintza eginen baititugu teorian oinarrituz.

* **Edurne ETXEBERRIA TELLETXEA.** Lehen Hezkuntzan irakaslea. IMP eskolan formatua, Rey Juan Carlos Unibertsitateetik “Coach Personal y Educativo con Inteligencia Emocional y PNL”. Camilo José Cela Unibertsitatean formatua “Especialista en Inteligencias Múltiples y Aprendizaje Cooperativo”.

* *KOPURU MUGATUA* *

Mindfulness-a (Arreta Osoa) eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Gaur egun gure hezkuntza sisteman irakasleen estres mailak oso altua izaten jarraitzen du. Irakasleei gero eta eskari handiagoak eta anitzagoak egiten zaizkie, egoerak ere azkar aldatzen dira eta egokitzea eskatzen zaie. Horregatik irakasleek beren lan esparruko eguneroko erronkak kudeatzen lagunduko dieten tresnak behar dituzte. Oinarri zientifiko sendoa duen mindfulness-a gakoa izan daiteke laneko eta erkidegoaren ongizatea sustatzeko tresna gisa.

Norentzat

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.

Helburuak

- Arreta Osoan oinarrituriko teknikak ikasi eta praktikatzea.
- Arreta Osoaren esparruan psikologiak eta neurozientziak egindako aurrerapenak eskolarekin eta ikasgelako kudeaketarekin lotzea.
- Gure burua hobeto tratatzen ikastea, Arreta Osoko tresnen bidez.

Edukia

- Mindfulness-a, irakasleen gogo-aldartearen autokudeaketarako.
- Mindfulness-a, ikasgela egoki kudeatzeko.
- Mindfulness-a, ikastetxeko pertsonen arteko harremanak egoki kudeatzeko.

Metodologia

Metodologia **teoriko-praktikoa** izanen da. Mindfulness-a hezkuntzan ardatz izanen duen oinarri teorikoa eta ezarritako helburuak eta edukiak lortzen lagunduko duten praktikak uztartuko dira. Gainera, irakasleen estresari buruzko kasuak aztertuko dira eta azalduko da estres hori mindfulness-aren bidez nola kudeatu.

* **David ALBEAR.** Euskal Herriko Unibertsitateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Departamentuko irakaslea eta ikerlaria da eta 11 urte daramatza psikologiaren profesional gisa BARAKA Psikologia Integraleko Institutuan. Hainbat ikastaro formakuntza eman ditu. 2016ko urtarrilean Mindfulnessi buruzko tesia irakurri du: "Mindfulness, auto-compasión y estrés docente en el profesorado de Educación Secundaria".

* **Pello URKIDI.** Donostiako Irakasle Eskolako irakaslea da, Mindfulness metodoarekin egiten du lan.

* **KOPURU MUGATUA** *

Laguntza inklusiboa eskoletan.

Praktika inklusiboen analisia

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Eskolatik komunitatean dagoen aniztasunari erantzun bat eman behar diogu. Horretarako laguntzak ere modu inklusiboan antolatu behar ditugu. Prozesu horretan eskolako profesionalok elkarrekin lan egin behar dugu gure praktikak aztertzen eta hobekuntzak proposatzen.

Norentzat

- Ikastetxeetako irakasleentzat (HH, LH eta DBH).
- Laguntza zerbitzuetan, eskolan, zonaldetan, eta abarretan lan egiten duten profesionalentzat (laguntza irakasleak, aholkulariak, orientatzaileak, e.a.).
- Eskola Inklusiboan interesa duen edozein pertsonarentzat.

Landuko diren gaiak

- Eskolako laguntza profesionalen zeregina eskola inklusiboan.
- Laguntza ereduak eta laguntza praktiken analisia.
- Eskolako laguntza taldearen zeregina (bir)pentsatu, inklusioaren ikuspuntutik.
- Irakasleen arteko harremanak: irakasleen arteko lan kooperatiboa.

Metodologia

Saioen izaera teoriko-praktikoa izango da, partaideen esperientziatik abiatuta, hainbat teoria analisien tresna bezala erabili eta proposamenak eraikitzeko aukera emanez.

***Javier MONZON GONZALEZ.** Didaktika eta Eskola Antolakuntza saileko irakasle titularra Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Donostiako Irakasle Eskolan. Inklusioa, laguntza irakasleak, laguntza zerbitzuak, aholkularitza eta eskola antolakuntza du aztergai bere irakasgaietan eta ikerketa lanetan. Ikastetxe eta Berritzegune ezberdinetan formazioa eman du gai hauen inguruan.

** KOPURU MUGATUA **

Heziberri 2020 programan Zientziarako kompetentzia garatzeko abiapuntu teorikoak eta estrategia metodologikoak: Bigarren Hezkuntza

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Heziberri 2020 programako zientziarako kompetentziaren xedeak kontuan hartuz ikastaro honek egungo eskola praktiken hausnarketa eta estrategia metodologiko berriak planteatu nahi ditu. Horretarako eskolako esku-hartzeak eta aprendizaiak zikloan izango dituen abiapuntu. Jarraian, zientzia modeloak eta modelizazio prozesuak ikutuko dira eta hau posible izan dadin aprendizaien kontestualizazioaren garrantzia. Esku-hartze interesgarri gisa irakasleei *indagazio* (ikasleak ikertzaile gisa ihardute) proposamen metodologikoak erakutsiko zaie. Azkenik irakaskuntza-ikaskuntza zikloaren euskarria landuko da: kompetentzia zientifikoaren ebaluazioan, ikasleen autoerregulazioa sustatuz.

Norentzat

Bigarren Hezkuntzako zientzia-irakasleentzat.

Landuko diren GAIAK

- **Aprendizaiaren zikloa** (Jorba eta Sanmartí, 1994).
- **Modelo zientifikoak eta modelizazioa** (Gilbert, Boulter y Elmer, 2000).
- **Kontestuak eta kontestualizazioa** (Sanmartí, Burgoa eta Nuño, 2011).
- **Indagazioa metodologia aktiboa** (Camaño, 2015; Domènech, 2015).

Metodologia

Metodología aktiboa erabiliko da, eta oinarri teorikoak ere landuko direnean irakasleen parte hartze aktiboa izango du.

Ikastaroak alde **teorikoa eta praktikoa** izango ditu. Lehenengoan, egungo planteamendu berritzaileek plazaratutako kontzeptuen inguruko hausnarketa bideratuko da kasu errealean azterketa eginez. Alde praktikokan, irakasleek kontestualizazioan eta indagazioan oinarritutako esku-hartzeak egingo dituzte.

* Miren Begoñe BURGOA ETXABURU. Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila.UPV-EHU; Grup de recerca LIEC Universitat Autònoma de Barcelona

* **KOPURU MUGATUA** *

Irakaslearen komunikatzeko estiloa eta efikazia gela barruko hezkuntzan

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Ikasle izan gareneko ibilbidean, irakasle denak ez zaizkigu neurri berean onak iruditu, batzuk txundituta utzi gaituzten bitartean, beste batzuk aspertu egin gintuzte. Esan ohi da, bata eta besteen artean komunikatzeko era dela aldatzen dena. Baina, zertan gauzatzen da komunikatzeko era hau?, nola baldintzatzen du irakaslearen egiteko moduak gela-ko giroa eta ikaslearen jokabidea eta ikaskuntza? Eta garrantzitsuena, nola eraikitzen dugu pertsonok komunikatzeko gaitasuna eta nola garatzen da? Pentsamenduak eta bizipenak giltzarri dira. Ikastaro honetan, aipatutako ideia hauek ardatz legez hartuta, norbere egiteko erari, eta komunikatzeko moduari buruzko hausnarketa sustatu nahi da, eta ikerketa oinarria delarik hobekuntzarako ideiez hornitu.

Norentzat

Gela barruko komunikazioa interesatzen zaion irakasleriarentzako: Haur Hezkuntza (2.zikloa), Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoan eta Lanbide Hezkuntzako etapetan lan egiten dutenentzat.

Gaiak

Irakaslearen komunikatzeko estiloa (hitzezkoa eta ez hitzezkoa): Ekintza (kontzientziar egiten dena); Pentsamendua (irakaslearen idearioa eta bere komunikatzeko modua); Bizipena (irakaslearen sentimenduen isla); efikazia (ondorio bat).

Metodologia (praktikoa eta teorikoa).

Eginda dauden ikerketak eta bertaratutako esperientziak oinarri modura hartuko dira. Azalpen magistralak eta esperientzien hausnarketak partekatuko dira.

* Verónica AZPILLAGA LARREA. Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea, Hezkuntza Zientzien, Filosofia eta Antropologiako Fakultatean (Pedagogian).
<https://www.ehu.eus/es/web/filosofia-bezkuntza-zientziak/veronica-azpillaga>

* KOPURU MUGATUA *

Konpetentzien ebaluazioa Bigarren Hezkuntzan

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Ikastaro honen bitartez, Bigarren Hezkuntzako irakasleak gaitu nahi dira konpetentziak nola ebaluatu daitezkeen ezagutzeko. Horretarako, gaur egungo hezkuntza ebaluazioaren nondik norakoak ikusteaz gain, konpetentziak ebaluatzeko erabil daitezkeen prozedurak, tresnak eta teknikak landuko dira.

Gaiak

1. Hezkuntza ebaluazioa gaur egun.
2. Konpetentzien izaera.
3. Ebaluazio sumatiborako tresnak.
4. Ebaluazio formatiborako tresnak.

Metodologia

Saio bakoitzean atal **teorikoa** eta **praktikoa** txandakatuko da. Azalpen teorikoekin batera eztabaidak sortuko dira. Ondoren, ikusitakoaren aplikazio praktikoa gauzatuko da.

*J.F. LUKAS MUJIKA eta *Karlos SANTIAGO ETXEBERRIA.
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (UPV/EHU).

Nola hobetu dezakegu ikasleen autoestimua?

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Jakina da hezkuntzak ikasleen garapen integrala bultzatu behar duela, baita garapen integral horretarako autokontzeptua/autoestimua faktore erabakigarria dela ere. Euskal curriculumak esplizituki aipatzen du ikasleek lortu behar duten gaitasunetako bat “arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea, eta, zehazki, nor bere burua ezagutzen ikastea eta autoestima izatea” dela. Oinarrizko hezkuntzaren azken xedea ikasleen potentzialtasun osoa garatzen laguntzea da. Norbera onartzea, baloratzea, edo maitatzea ezinbestekoa da estabilitate emozionala eta zorientasuna lortzeko; gainera autokontzeptuak pertsonen jokabideak erregulatu eta zuzentzen ditu. Autokontzeptua/autoestimua ez da innatoa, garapenean zehar eraiki eta definitzen da, batez ere beste pertsona esanguratsuen eraginarengatik. Halaber, helduek (familia lehenengo eta eskola ondoren) haurraren ekimenak jasotzeko erabiltzen duten moduak erraztu edo oztopatu egingo du haren garapena. Irakasleak, beraien jarduera, portaera edo hitzen bitartez, autokontzeptuaren formakuntzan aldagai erabakigarriak kontsideratu daitezke; eta autoestimu positibo baten garapena erraztu behar dute. Gainera, ikerketa gehienek erlazio esanguratsua aurkitu dute autokontzeptuaren eta errendimendu akademikoaren artean. Beraz, zergatik ez zaio alderdi honi behar duen garrantzia ematen? Zergatik ez da esplizituki autoestimu egoki bat bultzatzen? Gaur egun ikasle pila daude autoestimu baxuarekin, zergatik? Zer egin daiteke hori hobetzeko?

Norentzat

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.

Helburuak

- Autokontzeptua/autoestimua ulermena (definizioa, osagaiak, garapena, eragiten duten faktoreak, etab.) lortzea.
- Autokontzeptua/autoestimua hobetzeko estrategia eta esku-hartze programak ezagutzea.

Metodologia

Teoriko-praktikoa izango da. Autokontzeptu/autoestimuari buruzko ezagutza teorikoa jaso ondoren, hobetzeko estrategia eta programak ezagutu eta praktikan jarriko dira.

* Igor ESNAOLA ETXANIZ. Psikologian doktorea eta EHUko irakaslea.

Nerabeekiko lana irakaskuntzan

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Ikasketa-prozesua osatzen duten gainerako etapetan ez bezala, Bigarren Hezkuntzan aritzen garen profesionalentzako formazioak ez du kontuan hartzen gure ikasleen psikologia ezagutu beharra. Irudi lezake jada jende "helduarekin" ari garela, pertsona bilakatzeko prozesuaren gorabeherek desorekatzen ez dituztenak. Horrela, trataturako zailenetakoa den adin honetako gazteekin lan egiten dugunok hutsune handia sumatzen dugu hain ezinbesteko eta garrantzitsua den honetan: harremanetarako eta elkarbizitzarako gaitasunean. Ikastaro honen arrazoia hutsune hori betetzea da, eta helburua, gelako ohiko egoera -batzuetan zailgiak- kudeatzeko prestakuntza ahalik eta praktikoena ematea.

Norentzat

Gurasoentzat, hezitzaileentzat eta irakasleentzat.

Helburuak

- Hezitzaile garen aldetik, hezkuntza-sistema eta gure funtzioen gainean hausnarketa bultzatzea.
- Nerabezaroaren gakoak ezagututa, ikasleekiko harremana, gelako giroa eta geure lana errazago eta aberasgarriago egitea.
- Institutuetako geletako bizitza hobetzea. Berdin guretzat nola ikasleentzat, biak ala biak "biktimak".
- Nerabeekiko lanean burutu esperientzien partekatzea.

Edukiak

- Gaur egungo hezkuntza-sistema eta eskolaren helburu, sistema, ideologia eta jatorriaren inguruko azterketa kritikoa.
- Eskolan lantzen diren edukiak eta Ezkutuko curriculum-a.
- Ikastea vs. irakastea, hezitazileon papera aztergai: mugak, diziplina, askatasuna, autoritate funtzionala vs. autoritarismoa eta ezkutuko boterea.
- Haziera eta heziketa. Irakaslea, ikaslea eta familiaren arteko triangelua.
- Gizakiaren haziera-prozesuaren nolakotasuna. Giza garapenean neraberazoak duen tokia, funtzioa eta garrantzia. Nerabeen(tzako) tokia gizarte (ezberdinet)an.
- Nerabeekiko lana: Nerabeekiko harremanaren garrantzia, berezitasunak eta gure egoteko moduaren nolakotasuna, gela barneko ekosistemaren garrantzia eta Heldua-gaztetxoa.
- Nerabeekiko kontaktuak helduoi hunkitzen diguna eta lan pertsonalaren garrantzia. Izan ginen (eta ez garen??) ameslari eta errebeldeak.

Metodologia

Nagusiki teorikoa izango den arren, hausnarketak toki handia izanen du. Nerabeekiko lanean dabilen profesionalen baten hitzalditxoa-tailerra ere izanen dugu.

* Ane ABLANEDO LARRION. Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko irakaslea.

MINDFULNESS edo arreta osoarekin IRAKURTZEN

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Testuak ulertzea oinarrizko trebetasuna dugu ikaste prozesuan, prozesu hori ondo bete ezean nekeza delako gainerako materia eta edukiez jabetzea. Nolanahi ere, gure **ikasleek testuak eta jarraibideak ulertzeko arazoak** izaten dituzte askotan, horrek akademikoki eta baita pertsonalki ere dakartzan kalteekin.

Gabezia hori ase nahian, **bi arlo** jorratuko ditugu. Bata, irakurketaren esparru espezifikoarekin eta ikasleen ahalduzko-prozesuarekin lotutakoa, eta bestea, arreta lantzerako bideratutakoa, Mindfulness edo Arreta Osoaren ildoko ariketa eta oinarri teorikoen bidetik.

Helburuak

- Irakurketak eskatzen dituen estrategia kognitibo, metakognitibo eta motibazionalak jabetzea, testu-motaren eta eginkizunaren arabera.
- Arreta oinarrizko baliabidez hartuta, gelan **Mindfulness** ildoko ariketak praktikatzeko **arreta lantzeko** eta gela barruko **giroa hobetzeko**.
- Ikaslea hartzaile izatetik, edukien **sortzaile bihurtzea**, irakurketa prozesuaz ahalduzko tresnak eskainiz.

Edukiak

A- Irakurketa-prozesua:

- Irakurtzeko estrategiak ezagutu eta lehen pertsonan, hau da, ikasle rolean, bizitzea:
 - **Estrategia kognitiboak:** (arreta, behaketa, memoria, konparazioa, sintesia...)
 - **Estrategia metakognitiboak:** ulermenaren monitorizazioaren garrantzia. Ikaste prozesuan proaktibitate eta **jabekuntza**.
 - **Estrategia motibazionalak:** irakurtearen balioa eta norbere buruaren balioa bultzatzekoak.
- Ikaslea hartzaile paperetik, edukien sortzailerako pasatzea.
- Irakurtzeko **abiadura** handitzeko teknikak eta irakurtzean parte hartzen duten gorputz atalak indartzeko ariketak.

B- Arreta eta erlaxazioa lantzeko ariketak:

Horrez gain, arnasketak duen garrantziaz jabetu, bai kontzentrazioan bai ahoz gorako irakurketan, eta ikasi ikasleei era egokian arnasten nola erakutsi.

Metodologia

Prozesua **ikuspuntu eraikitzaile** batetik planteatuta dago, parte-hartzaileek gaiaren inguruan duten informazio eta bizipenetatik abiatuta.

Arreta lantzeko, **Mindfulness**-aren oinarri teorikotik abiatuko gara **lan praktikoan** zentratzeko.

*Virginia BELATEGI AZPIRI – erain Hezkuntza Integrala.

Komunikazio Ikasketetan graduatua. Arrisku Psikosozialen Prebentzioarako goi-mailako teknikaria. Gestalt Terapiaren eta Talde Dinamikan trebatua, PNLn Master Practitioner eta EFTn trebatua. TREVA Programako trebatzailea. Mindfulness eta Hezkuntza Kontzientean Unibertsitate Espezialista. TDAH eta Ikaste Prozesuen eta Jokabidearen Nahasmenduetan Aditua. Kontsulta psikoedukatihoa, Durangon.

Motibatu nahi?

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.

9:00-14:00

Desberdinak gara denok eta uneoro desberdin sentitzen gara. Aritu ere, ezberdin aritzen gara. Hiru motibazio izan ohi ditugu bizitzan aurrera egiteko: bidearen amaieran saria bistaratzea, zigor edo mehatxuek behartuta aritzea edo automotibazioa. Azken hau da, zalantzarik gabe, eraginkorrena, baliagarriena eta bakoitza gehien asebetetzen duena.

Norberak bere burua motibatzea ez da beti erraza. Baina bizitzan gauza gehienak bezala, ikasi daiteke eta horixe da ikastaro honen helburua: automotibatzen eta motibatzen ikastea.

Motibazioaren inguruko hausnarketa praktikoa da egingo duguna. Pertsona bakoitza zein egoera edo unetan dagoen baloratzeko tresnak ezagutuko ditugu, eta, horren arabera, zein baliabide edo estrategia erabili erabakitzen ikasiko dugu. Bai gudan, zein besteengan. Bakarka edo taldean.

Egunerokotasunean erraz aplikatu daitezkeen ideia eta abilezia praktikoak landuko ditugu, erabiltzen dugun hizkuntza edota jarrera sortzaileari erreparatuko diogu. Besteen ideiak onartu eta balioesteari, galdera interesgarriak egiteari edo eta inguruko ohiturak zalantzan jartzeari arreta jarriko diogu.

Motibazioa barne indarra da. Norberaren esku dago ilusioa piztea eta su hori mantentzea. Motibatzen ikasi nahi?

*Nerea REDONDO OTAMENDI. Coach eta Formatzailea.

** KOPURU MUGATUA **

Ipuinak kontatzen IRUDI-LIBURUAK lagun, haurren arreta mantenduz eta elkar entzuteko espazioa zainduz

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.

9:00-14:00

Ipuinak kontatzeko modu desberdinak dauden arren, seguraski, irudi-liburuen bitartez egiten dena izango da erabiliena. Zoritxarrez, oso hausnarketa gutxi eskaini izan diogu kontatzeko modu horri, **elkar entzuteko espazioa zainduta**, haurren arreta mantendu dadin kontaketa hasieratik bukaeraraino.

Norentzat

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan dabilzan hezitzaileentzat, batik bat.

Landuko diren gaiak

-**IRUDI-LIBURU** desberdinak sailkatu.

-**IRUDI** liburuekin kontatzeko estrategiak gureganatu:

-Irudia eta hitzaren arteko harremana.

-Kontaktaren erritmoa.

-Testu egokitzapena: ahozkoa hurbiltzeko estrategiak.

-Gorputzari dagozkionak: ahotsa, keinuak, imintzioak, begirada . . .

-Jarrerari dagozkionak: konfiantza, presentzia, sinesgarritasuna . . .

-**Haurrengan ARRETA** mantentzeko estrategiak landu:

-Erlaxazioa / Kontzentrazioa / Inprobisazioa /Entzuketa kontzientea.

-**ELKAR ENTZUTEKO ESPAZIOA ZAINDU**, egoera erritual desberdinak lagun.

Metodologia

Jarduera praktikoez gain, kontatzeko aukera ere izango da.

Obarra: gomendatzen da parte-hartzaile bakoitzak ekartzea irudi-liburu batzuk (Kontatzen erabiliak izan direnak) / Esterila (lurrean etzatekoa) / Arropa eroso.

* **PELLO AÑORGA.** Ipuin kontalaria, idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea.

* **KOPURU MUGATUA** *

Entrenamendu Mentalaz eta Ametsak aztertuz, zoriontsu!

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Produkzioa gero eta gehiago baloratzen den gizarte honetan, gizakion benetako osotasunaren prestakuntzan dauzkagun hutsuneak nabarmentzen dira: konfiantza falta, beldurrak, muga estuak, noraeza, pertzepzio ez zuzenak, gure buruarekiko eta inguruarekiko sinesmen ez zuzenak, etab.

Entrenamendu Mentaletik eta ametsak ematen diguten informazioarekin barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, helburuak argitu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratu du, bizitza kalitatea ikaragarri hobetuz eta ingurukoei hobetzen lagunduz. Ah! eta bizipozez gainezka, gehiago eta hobeto produzituz.

Norentzat

Pertsonaren garapenari zuzendutako ikastaroa izanik, irakasle, guraso zein bestelako profesionalak parte hartu dezakete.

Helburuak

- Psikologia Positiboa, PNL, Sofrologia, Kontrol Mentala, Ho' oponopono, Berez dena maitatu, Erabateko Barkamena, Mindfulness eta beste hainbat barru lanketa tresnen eraginkortasuna bizi.
- Ametsak ulertu eta lantzen ikasi (Gestalt, Gayne Delaney, etab).
- Gauzez zein egunez, norbere baliabideen ezagutza hobetu, zoriontsuak izateko erabili eta emozionalki garatzeko tresnak landu.

Edukiak

- Meditatzeko egoera nola lortu.
- Indarberritzeko ariketa (edozein egoeratan gure burua indartzeko).
- Norbere baliabideen ezagutza errazteko tresnak.
- Norbere helburuak lortzea errazteko tresnak.
- Norbere buruan sinistu eta konfiantza lantzeko tresnak.
- Jendaurrean gustura moldatzeko tresnak (kontzertuak, hitzaldiak, bilerak, azterketak, proiektu aurkezpenak, oposizioak, etab.)
- Maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnak.
- Egunerokotasunean gertatzen diren gatazkak baretu eta konpontzeko tresnak.
- Errendimendu intelektuala hobetzeko tresnak (memoria, kontzentrazioa, etab.).
- Errendimendu fisikoa hobetzeko tresnak.
- Ametsak guretzako daukaten informazio zuzena bizi eta ulertzeko tresnak.
- Bizitza hobetzen laguntzeko ametsen aukera.

Metodologia

Ariketak eta kontzeptuak praktikatu eta barneratu ondoren, sortzen diren galderak erantzungo dira. Zenbaitzutan, ariketa praktikatu ondoren azalduko da. Beste batzuetan azaldu ondoren praktikatuko da. Ikastaroa erabat partehartzailea da. Ikastaroaren helburu nagusia, eskainitako informazioaren onura, praktikak ekarriko digula ohartzea da.

* Urko AROZENA. Musikeneko irakaslea. Psikologia Positiboan, Kontrol Mentalean aditua.

OTSOAREN AHOAN BARRENA!

HEROIAREN BIDAIAz ikasgelan esperientzia pedagogiko bat
bizi dezagun gonbidapen ludikoa

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.

9:00-14:00

Istorieok piztutako suaren inguruan, GURE BARRUKO HAURRAREN BIHOTZA kontsolamenduz, itxaropenaz eta senaz berotzen da. Gu baino lehenago, aspaldi-aspaldiko beste heroi batzuen ereduak OTSOAREN AHOAN BARRENETIK ONIK atera gaitzkeela erakusten digulako. Nork bere bideari KONFIANTZAZ ekin diezaion.

Norentzat

EDOZEIN ETAPAKo tutore, hizkuntza irakasle, orientatzaile...

Tailer hau dugu ESPAZIO BAT, DENBORA BAT

• IPUIN, MITO, ELEBERRI, FILM, abentura eta narrazioetan murgilduz...

- ...Joseph Campell-en HEROIAREN BIDAIA osatzen duten UNE desberdinak identifikatzeko: Deia eta exetetik ABIATZEA – INIZIAZIOA eta probak – Garaipena eta, altxor baten jabe, komunitatera ITZULTZEA

- ...Carol Pearson-en EBOLUZIO ARKETIPOAK (haurra – umezurtza – arlotea – gertaria – ongi-ilea – bufoia – aztia...) kokatu eta bakoitzaren argiak eta itzalak ulertzeko

- ...Irene Henche-ren HAMABI IPUINETAN ZEHARreko heroiaren transformazioak antzematuko (erlojuan ezkutatutako Antxume Gazteena izatetik maitasunaren indarrez Piztia salbatzen duen Ederra bihurtzerainoko urratsak)

- ...kontakizunetan ARGUMENTU UNIBERTSALAK bila ditzagun: monomitoaren OIHARTZUN edo mugagabeko bertsiok

• Aldi berean, IRUDIEKIN JOLASEAN tailer hau AUKERA BAT da...

- ...gure bizitza gobernatzen duten MITO PERTSONALEn arrastoak azaleratzeko

- ...IKASLEAREN eboluzio unea eta norabidea ulertzeko, IDENTIFIKAZIO irudi eta pertsonaiekin jolasean, bere AUTOKONTAKIZUNA eguneratzeko elementuak eskainiz

- ...TALDEAREN DINAMIKA atsegin, interaktibo, emankorrako bihur dezagun tresna didaktiko batzuk ezagutzeko

- ...ikasleek gure KULTURAREN oinarrian dauden narrazio, pertsonai, argudio eta irudi asko aurki ditzaten, esanahi berriak aurkituz eta taldeak eskaintzen duen KONFIANTZA GIROAN bizipenak partekatuz

* **Eduardo FRAILE VERA.** DBHko hizkuntza irakaslea. Helduentzako literatura tailerren dinamizatzailea. Pedagogoa.

Euskal mitologia eskoletan

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

EUSKAL MITOLOGIAren TRANSMISIOrako **PROPOSAMENA**: **zergatik, ZER eta NOLA**

Maiz, ipuinak kontatzen ditugumean, euskal mitologiako pertsonaiak eta numenak aipatzen ditugu, sarritan oso ongi nor den eta haien arteko harremanak zeintzuk diren jakin gabe.

Hala ere, badakigu, eta horrela adierazten dugu gure eginkizunetan, *euskal mitologia euskal kultura barnean*, askotan gizartearen oinarrian, kokatzen dela, eta ezagutza horren transmisioa ezinbestekoa dela.

Ikastaro honen xedea, Mariren mundua ezagutzeko bidean ibiltzea da, gero haurrei transmititu ahal izateko. Alde batetik, *euskal mitologiaren pertsonaiak*, eta bestetik, *haien arteko harremanak eta antolamendua* ezagutzera emango dira ikastaro honetan.

Horretaz gain, euskal mitologiaren transmisioan lanean aritu eta jarraitzeko, *ekintza zehatzak proposatuko dira ikastaro honetan*, euskal mitologia den altxorra transmititzeko zer eta nola azaltzeko proposamen konkretuak eskainiz.

Norentzat

Bere lan-jarduera barnean euskal mitologiaren ezagutza transmititu nahi dutenentzat (irakasleak, hezitzaileak, begiraleak, etab.), baita euskal mitologia maite duen orentzat ere.

Helburuak

- Euskal mitologia transmititzeko zergatia jorratzea.
- Euskal mitologiaren pertsonaia nagusiak eta haien arteko harremanak eta antolamendua ezagutzea.
- Transmisio-irakaskuntzarako proposamen zehatzak lantzea.

Metodologia

Metodologia praktikan oinarritua bada ere, ezagutza teorikoak ikusiko ditugu era arin eta dinamikoan.

* Ixabel MILLET. Kontalaria, idazlea eta formatzailea. Hendaian kokaturiko Bi'Arte elkarteko zuzendaria.

* *KOPURU MUGATUA* *

Yoga eta Kontzentrazio Teknikak eskolan

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Zoriontsu izaten ikasteko tresnak

Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispersioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desagokiak eta abar presente baitaude.

Guzti horrek irakasleen osasunean eragin dezake, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotuz (urduritasuna, lo egieko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, etab.).

Yogako hainbat teknikak eragin horiek arindu eta bideratzen dituzte. Teknika horiek ikasleekin erabiltzeko aukeraturata daudenez, beraien kontzentrazioa handitu egiten da, lasaitasuna ezarri, adimenaren gaitasunak bizkortu, portaera hobetu eta ikasketarekiko jarrera baikortu egiten da.

Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu, adimena lasaitu eta kontzentratzen ikasi.
- Arnasketak, nerbio sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenez jardun eta teknika horiek behar diren momentuetan erabiltzen ikasi.
- Adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak ikasi, horiek ikasleekin landu ahal izateko.
- Erlaxazio sakonaren bitartez, fisikoki eta psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ikasi.
- Horren guztiaren ezagutzaz eta praktikaz, zoriontsuago izaten ikasi.

Edukiak

- Osasuna indartzeko bost puntuak.
- Zoriontasuna eta egoera horretara iristeko baliabideak.
- Arnasketa prozesua eta bere eragina emozioetan.
- Emozioak askatzeko teknikak. EFT.
- Kontzentrazio ariketak.
- Bisualizazio teknikak.
- Erlaxazio sakona.
- Sintesia: ikasleekin egiteko erlaxazio, atentzio eta bisualizazio ariketak.

Metodologia

Yogak izaera esperimentalak daukenez, tailerra hainbat teknika erabilgarriren esperientzian oinarrituta dago.

***Marina PINTOS MARTIKORENA.** Pianojole, musika irakasle eta yoga irakaslea. Azken urteotan Hezkuntza Elkarteei egokitutako formakuntza tailerrak zuzentzen ditu.

* **KOPURU MUGATUA** *

Yogarako sarrera

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU. 9:00-14:00

Ikastaro honetan 18 yoga asanarekin (postura, jarrera) arituko gara. Helburua da gorputza lantzea erne eta lasai agertzeko prestatzen dugun bitartean.

Postura bakoitzak zenbait etapa edo fase ditu. Modu horretan, bai hasten dagoen ikaslearentzat zein trebe eta asko aritutakoarentzat egokiak eta aproposak bihurtzen dira.

Hatha Yoga klasikoko milaka asana edo jarreretatik, ondorengo 18 asanak eta euren aldaera batzuk aukeratu-ko ditugu. Hemezortzi bitartez gorputz osoko gune guztietan lortzen da eragina modu eraginkorren. Gainera, yoga ikasten jarraitu nahi duenak bidelagun izango ditu etorkizunean, osagarri izango baititu bere yoga maila berrietan. Beraz, hasteko metodori egokiena 18 asanak praktikatzea da.

Jarrerak kontzentrazio mentala lortzen laguntzen dute eta, aldi berean, baita gure izaeraren alderdiak hobeto integratzen ere. Gogoia kontrolpean edukitzearekin konparatuz gero, erraz samarra da gorputz fisikoa menperatzea. Posturok lasaitasun eta erneasun egoera eragiten dute. Barruko organo eta guruinei ematen diete masajea eta gorputz psikikoa egonkortu. Oso eraginkorrak dira hainbat nahaste funtzional edo gaixotasun sendatzeko edo ekiditeko; hala nola, diabetea, arnasketa arazoak, hipertentsioa edota desoreka emozionala. Beraz jarrerok gizateriaren miseriarik arruntena desagerrarazi edo sendatu dezakete; hots, ondoeza edo "osausun eskasa".

Norentzat

Nornahi zein edonorentzat.

Landuko diren gaiak

18 asana.

1. Agur egiteko jarrera edo asana . 2. Eguzkia gurtzekoa. 3. Sorbalden gainekoa. 4. Arrainarena. 5. Zutik dagoen kurriloarena. 6. Arkuarena. 7. Alderantzikoa. 8. Arrain erdiarena. 9. Goldearena. 10. Sugearena. 11. Ikurrarena. 12. Gurpil erdiarena. 13. Jesarritako kurriloarena. 14. Matxinsaltoarena. 15. Gogortasunarena. 16. Tximistarena. 17. Triangeluarena. 18. Bake eta erlazazio osoko jarrera edo asana.

Metodologia

Asana edo postura bakoitza aurkeztu eta bertan landuko dugu. Kontuan hartu beharrekoak azaldu ostean, posturok modu osagarrian antolatuko ditugu, bakoitzaren ostean erlaxazioa eta nasaitzea erraztuz. Azalpen errazen bidez jarraibideak erakutsiko ditugu. Baita ere posturon onura ugariak adieraziko dira. Ariketon jardunean edo praktikan jarraitu beharreko hastapen eta printzipioak azalduz eta argituz joango gara. Beraz ikastaro honen izaera guztiz praktikoa izango da. Jantzi erosoekin etortzea gomendatuko da.

* Mikel AGIRREAZKUENAGA. Bizkaiko Irakasleen Eskola, EHU-UPV. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saila.

Haurrentzako masajea

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Ukitu + sentitu = kokatu

1. eguna: UKITU
2. eguna: SENTITU eta KOKATU

Norentzat

Haur Hezkuntzako irakasleentzat, gurasoentzat eta, oro har, haur txikiekin ari direnentzat.

Edukia

Masajea 0 urtetik 3 urtera bitartean

- Elkarki larruazalak ukituz egoteko premia.
- Larruazalaren muga sentitzeko premia.
- Gorputz osoa larruazalaren babespean integratzeko premia.
- Hori guztia haurraren erritmoa eta premiak errespetatzen, eta haurraren larruazala, eta organoen edo segmentuen funtzionamendua (batetik heltze prozesu zefalo-kaudalean eta bestetik kaudo-zefalikoan) estimulatzen duen pertsonak emana.
- Masajea; komunikazio modulatzailen estimulazioaren bitartekaria: ikusmena, entzumena, larruazala, mimika, ahotsa, alaitasuna, eta abar.
- Erditze traumatikoaren ondoko masajea.
- Masaje reichiar zefalo-kaudala.
- Masaje Shantala kaudo-zefaliko.
- Oinen masaje erreflexua.
- Masaje lehenengo egunetik bertatik.
- Masajea lehen 4 hilabetetan.
- Masajea 4 hilabetetik urte batera.
- Masajea eta berraseguratzeko mugimendua urte betetik 3 urtera bitartean.
- Giro lasaia eragiten duten egoerak sortzea, helduari egoten lagunduko diotenak, haurrak ukitzeko eta aldi berean “ukitu”a izateko esperientzia naturala bizitzeko, eta, elkarriketa tonikoa oinarri hartuta, besteak ematen dizkion erantzunen arabera aldatzen joateko haurrari premietan laguntzekoa.

Metodologia

Teoriko-praktikoa izango da.

* Ramon MAUDUIT. Psikologoa eta prebentzioan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Haurren autoestimua

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Pertsona bakoitzak dugun geure irudi edo estimua gizakion bizitzaren oinarria da, bizitzan egoteko eta izateko modu bat azaltzen du. Norberaren autokontzeptu honek ikasketa prozesuan, erabakiak hartzeko garaian, norberarekin eta gainontzekoekin erlazionatzeko eta bizitzak aurkeztuko dizkigun egoera desberdinetan aurre egiterakoan eragin zuzena izango du.

Nola daki haur batek balioetsua dela? Haurren autoestimua ez da zerutik erortzen den edo genetikaz etortzen den zerbit. Guraso eta hezitzaileak, nahi edo ez nahi, erlazioan gauden momentutik haurren autoestimua elikatzen goaz, modu baikor edo ezkorrean.

Beraiekin ditugun interakzioek eragina eta inpaktu zuzena badute, nola lagundu diezaiekegu beraiegan duten irudi eta estimua daukaten benetako balioarekin bat eginda egon nadin? Nola adierazten diot haur bati balioetsua, maitatua eta onartua dela?

Haur guztietan dagoen diamantea aurkitu dezagun, jokaera egoki edo desegokiak baldintzatu gabe.

Norentzat

Guraso, hezitzaile edo interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Haurren autoestimua eraikuntzan dugun eraginaz ohartu
- Haur bakoitzean dagoen altxorra aurkitu
- Haurrek beraiegan konfinantza sustatzeko ideiak aurkeztu
- Haurren zailtasunetan bide lagun izateko lanabesak barneratu
- Zoriontasun eta ongizate emozionalerako giltzak garatu.

Edukia

- Nola erakitzen da autoestimua? Zerk lagundu edo oztopatu dezake helduen partetik norbere irudiarekin gustura egotea?
- Zein da zure haurra/ikaslea? Altxorraren bila.
- Jokaera desatseginen aurrean, nola lagundu bere irudia zapuztu gabe?
- Jokaera atseginetan nola errekonozitu beregan dagoen balioa manipulazioan erori gabe?
- Nola lagundu bere buruarekin ziurtasun eta konfinantzarik agertzen ez duenari? Bere ikasketetan, bere harremanetan...
- Proposamen eta iharduerak autoestimua elikatzeke

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren ariketa praktikoan bidez, guraso eta hezitzaileek kasu konkretuetan landu ahalko dute.

* Nerea MENDIZABAL. Psikopedagogo, haur masajeko hezitzailea eta komunikazioan aditua.

* **KOPURU MUGATUA** *

Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Arin doa mundua, eta hala dabilta gure buruak ere sarritan: pentsamenduz beteak, joan etorri etengabe batean.

Gaur egun arreta mantentzea gero eta zailago bihurtzen ari den zerbait da teknologia berrien erabileraren ondorio moduan.

Baina arreta landu daitekeen zerbait da. Arreta mentearen muskulua dela dio Daniel Goleman, Hezkuntza Emozionala ezagutzera eman zuen autoreak. Gorputzeko edozein muskulu entrenatu dezakegun bezalaxe, gure mentearen muskulu hau ere garatu dezakegu eta onura dextente ekarriko dizkigu gure egunerokotasunera: kontzentratzea errazago izango da, lasaiago biziko gara, geure barne mundua eta emozioak hobeto kudeatuko ditugu.

Norentzat

Norberaren arreta landu nahi duen ororentzat, eta baita, hurrekin edo gazteekin lan egiten duten horientzat; arreta piztea eta mantentzea beharrezko dutenentzat bere lanean.

Helburuak

- Arreta, kontzentrazioa eta orainean bizitzeko gaitasuna landu.
- Erlaxatzen eta meditatzen ikasi.
- Norberaren izatearen maila ezberdinak: gorputza, mentea, emozioak eta egitearen arteko harremana kudeatu.
- Barne lekukoa indartu eta landu.

Metodologia

Gorputzean eta arnasean oinarritzen diren ariketa sortzaileak eta praktikoak erabiliko ditugu arreta garatzeko. Gorputz Adierazpena, Ioga eta Mindfulness (Arreta Osoa) teknikak sakonduko ditugu.

* **Naiara GORROÑO VITERI.** Komunikazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogian Masterduna Bartzelonako Unibertsitatean. Yoga irakaslea. Mindfulness bideratzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Gorputzetik hezi eta bizi; gorputza, irakaskuntza prozesuan txertatzen

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Bizi dugun jendartean pentsamenduaren garrantzia gailendu da, gorputzaren eta emozioen kontzientzia eta adierazpenaren gainetik. Baina hezkuntza-prozesuak esanguratsuak izan daitezten, pertsona osatzen duten hiru oinarriak bateratzea ezinbestekoa da; emozioak, pentsamendua eta gorputza.

Ikasturte osoan zehar pentsamendua astintzen ibili ondoren, topaketa hauetan, hezkuntzan lantzen ditugun gaiak gorputzean bizitzea da ikastaro honen proposamena. Eta bestalde, **gure eguneroko jardun profesional eta pertsonalean txertatu ahal izango diren dinamika, proposamen, etab. guztiz praktikoa eskainiko dira.** Beraz, ikastaroak izaera praktikoa izango duen arren, marko teoriko laburra ere eskainiko da.

Norentzat

Irakasle, hezitzaile, formatzaile eta bere buru-gorputzaren kontzientzia hartu nahi duen edonorentzat.

Metodologia

Biodantza sistema oinarri hartuta, beste hainbat teknika eta ikuspegi ere landuko dira: mindfulnes, pedagogia sistemikoa, yoga eta meditazioa...

* **Elen KORTAXARENA.** Humanitateetan lizentziatua eta Haur Hezkuntzan graduatua. Biodantza Irakaslea haur, gazte eta helduekin.

* *KOPURU MUGATUA* *

DALCROZE ERRITMIKA metodologiara gerturatzea

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Jaques-Dalcroze Erritmika (Rythmique Jaques-Dalcroze edota Dalcroze Eurythmics) musika-irakaskuntzarako munduan aitoren handiena daukan eta zabalduen dagoen pedagogia aktibotarikoa da. XIX. mendean hondarrean izena ematen dion gizonak berak Genevan (Suitzan) metodologia hau garatzeari ekin zion, eta ordutik XX. mendean zehar mundu zabalean hedatu eta herrialde ezberdinetan Dalcroze elkarte eta profesional asko ugaltu dira (Suitza, AEBak, Japonia, Australia, Belgika etab.). Euskal Herrian sortze bidean aurkitzen da.

Norentzat

Musika irakasle edota mugimenduaren aplikazio jakin bat bilatzen duen ororentzat zuzendua.

Edukia

Musika eta irakaslearen esanak jarraituz, hartzailera musika bera edo ezaugarri konkretuak integratzen joaten da, hasieratik maila intelektualera jo beharrean lehenik musika biziaraziz eta sentiaraziz, ondoren integratuz eta zentzua emanez, eta azkenik aurrez egindako hori guztia musika lengoaiaren kodifikazio arruntera (idazkera eta kontzeptuetara) eta ulermenera eramanez.

Pilota, uztai, klabe, pandero, soka... eta nahi beste elementuren erabilera eginez, eta sarri psikomotorritate kutsua eduki dezaketen ariketak burutuz (polirritmiak oin eta eskuen artean, lateralizazioaren lanketa, objektuak eskuetan edukiz mugimendu sormena lantzea, espazioaren kudeaketa...), irakasleak zuzenean sortu ohi duen musikarekin erabateko konexioan era guztietako musika edukiak lantzen dira: izaera erritmikoa dutenak, izaera melodikoa dutenak, izaera harmonikoa dutenak, esaldi luzera edo formari dagozkionak, dinamika edota agogikari dagozkionak...

Dalcroze Erritmikak musika era oso atsegin eta ludiko batean barneratu eta ikasteko aukera paregabe eskaintzen du eta adin guztietarako balia daiteke, txikienetatik hasi eta 3. adineko pertsonenganaino.

Metodologia

Metodologia honen ezaugarri nagusia musika eta mugimenduaren artean egiten den lotura estua da. Gorputzaren eta espazioaren erabilera erabatekoa eginez ikasleari musika sakonki biziarazten zaio. Horretarako, irakaslea lortu nahi duen helburua pianoan zuzenean inprobisatuz jotzen duen musikaz baliatzen da.

Izaera

Ikastaro honetan alderdi praktikoa izango da nagusi (Dalcroze Erritmika bidezko musika klaseak jasoko dira), baina azalpen teorikoak ere jasoko dira, baita bideo batzuk ikusi eta aztertu ere.

***Beñat RALLA YUSTA.** Herri Lanetako Ingeniari Tekniko gisa lanbidea utzi eta Musikaren Pedagogia ikasketak burutu ostean, iazko ekainean Genevako Goi-mailako Musika Ikastegian Dalcroze Erritmikan gradu eta master ikasketak eskuratu zituen. Egun Lehen Hezkuntzan musika irakasle ari da eta proiektu artistiko baten sormen prozesuan murgilduta dabil.

ANTZERKI TEKNIKAK:

hezkuntzarako tresna pedagogikoa

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

Ikastaro honen helburua antzerkiak eskaintzen dizkigun tekniketari entrenatzea da, gero hauek ikasleekin tresna pedagogiko moduan erabili ahal izateko. Antzerkia edozein ikasgaietan erabili daitekeen metodologia berritzaile eta sortzaile baliogarria izan daiteke.

Norentzat

Antzerkiaren tekniketari entrenatzeko interesa duten irakasleentzat.

Gaiak

- **Antzerki arloan:** gorputz adierazpena, beroketa jolasak, rolen jolasak, inprobisazioak, Antzerki Imajina, Antzerki Foruma.
- **Trebetasunak arlo pertsonalean eta sozialean:** Autokontzeptua, Enpatia, Emozioak, Gatazken konponbidea.

Metodologia

Esperientzian eta ekintzan oinarritzen den metodologia oso dinamikoa erabiliko da. Talde osoan, talde txikitan edo banaka, landuko ditugu gai ezberdinak. Testuinguru babestu eta konfiantzazkoa eskainiko da, bakoitzaren erritmoa errespetatua izan dadin. Prozesua ondo ulertzeko, dinamizatzaileak behar diren azalpenak emango ditu, eta talde hausnarketari bere garrantzizko lekua emango zaio.

Izaera

Praktikoa.

* **Esther URÍA.** Aktorea eta Psikopedagogo. Momentu honetan Unibertsitatean Antzerkiaren eta Elkarbizitzaren inguruan ikerketa bat garatzen ari da.

* *KOPURU MUGATUA* *

PLASTIKA TAILERRA

Kutxa baten balioa

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.

9:00-14:00

-Ez dakit zertarako gastatu dudan hainbeste diru jostailu horretan!
 Begirada arin bat bota eta berehala KUTXAREKIN hasi da jolasten!

Kartoizkoak zein plastikozkoak, gailetenak zein gaztatxoanak, karratuak zein borobilak... kutxez inguratuta bizi gara eta denok dakigu umeei oso erakargarriak egiten zaizkiela.

Etxeko zaborrontzia erraz betetzen zaigu, baina proposamen bat egingo dizuet arazo hau konpontzeko:

KUTXA hauek **BIRZIKLATU** egingo ditugu eta **BIZITZA BERRIA** emango diegu!

Norentzat

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1go zikloko irakasleentzat bereziki. Baita adin horretako umeekin ari diren begirale zein gurasoentzat.

Helburuak

- Birziklatzearen garrantziaz ohartu.
- Baliabide berriak ezagutu.
- Materialek ematen dizkiguten aukera desberdinak ezagutarazi.
- Irudimena eta sormena landu.

Metodologia

Tailer honetako metodologia guztiz **dinamikoa** eta **praktikoa** izango da.

Kutxak oinarritzat hartuta eta beste material batzuk erabiliz (tutuluak, yogur ontziak, tapoiak...) **zaharretik berriak sortuko ditugu.**

Proposatutako **ereduak** desberdinak izango dira: jostailuak, apaingarriak, txotxongiloak... baina beti gure neska-mutilek aurrera eramateko **egokiak**. Gu haien **laguntzaileak** baino ez gara izango.

* **Alazne UGARTETXEA**. Haur Hezkuntzako irakaslea eta umeentzako tailerretan aditua.

* **KOPURU MUGATUA** *

Espresio tailerra

“Sortuz sentitu - Sentituz sortu”

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.

9:00-14:00

Sortze-prozesua oinarriztat hartuta, emozioekin egingo da lan. Tailer praktikoa izango da. Pintura, zeramika, eskultura, gorputz espresioa, erlaxazioa... hainbat elementu uztartuko dira emozioak azaleratu eta bideratzen ikasteko.

Sortzea, artea, sendabide bat dela zioen Joseph Beuys artistak. Bere aburuz edonor izan daiteke artista. Sortze prozesuan norbere barrenak hustu eta hein batez emozio edo bizipen horietatik askatzen baikara.



Jung-ek zioen moduan gizakiak sozializatzeko prozesuan sozialki "zuzenak" edo "egokiak" ez diren norbere ezaugarri eta emozioak baztertzen ditu, inkontzientean gorde, pilatu. Egunerokoan ordea Jung-ek "itzala" zeritzon horrek nahi gabe baldintzatu eta mugatu gaitzake. Emozio eta korapilo horiek azaleratzeak gertatzen zaigun horren kontziente egiten gaitu; modu horretan gure jokamoldearen zergatia azaleratu eta egoera horretan esku har dezakegu. Tailer honen helburua sormenaren laguntzaz parte hartzaileen emozio eta jokaeren kontzientzia hartzea eta norbere potentziala berreskuratzea da.

Ikastaro honetan pertsonalki sentitu, sumatu eta bizi izandakoa lanabes bilakatuko da hurrekin lan egiterakoan. Enpatiaz lan eginaz hurren emozioak, beharrak eta kezak sortzearen bidez askatu eta bideratu ditzakegu. Hitzez espresatu ezin duten hori konturatu gabe irudikatu eta azaleratzen baita sortze-lan orotan.

***Jasone IRIGOIEN LOINAZ.** Sortzailea (pintura, eskultura, performance). Arte Ederretan lizentziatua. Ikasketa aurreratuetan diplomatua Irudia, Teknologia eta Kulturaren alorrean. Terapia alternatiboetan titulaturia (Reiki III, Kristaloterapia, Sanazio pranikoa). Pinturako Irakaslea. Espresio tailerren gidaria (haur eta helduak).

* **KOPURU MUGATUA** *

Gure imaginarioa kantagintzaren bitartez: eskoletan lantzeko kontzeptuak

Ekainak 28, 29 eta 30. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan.
9:00-14:00

Literaturaren eta musikaren elkarreraginetik sortutako kantek euskaldunongan izan dute eraginaz.

- Zelan kantatu dute gure idazle eta musikariek Euskal Herrian?
- Zein eragin (izan) dute idazle eta musikarien artean sortutako kantek euskaldunon imaginarioan?
- Zein alde dago Historia liburuetan erakusten digutenaren eta idazle eta musikarien artean sortutako kantek kontatzen dutenaren artean?
- Kantetatik zein eduki dira eskoletarako baliagarri?

Galdera horiei guztiei ikastaro/taillerrean parte hartuko dugunon artean erantzuten ahalegingiduko gara. Horretarako, zenbait kantari eta musika taldek kantuetarako erabili dituzten testuak eta kantari eta poeten arteko harremanak aztertuko ditugu: idazleak aurkeztuko ditugu, musikariak, tesuingurua eta ondorioz Euskal Herriaren historia, Euskal Herriaren bilakaera kulturala, soziolin-
guistikoa eta politikoa hausnartuko ditugu.

Halaber, idazle eta musikarien elkarreraginetik ondutako kantetan jorratzen diren kontzeptuak (identitatea, lurraldetasuna, maitasuna, askatasuna, galera, adiskidetasuna...) erazuko ditugu eskoletan zelan erabili proposatzeko.

Norentzat

Literaturazaleentzat, musikazaleentzat, kulturazaleentzat, hezitzaile zein irakasleentzat...

Helburuak

- Idazle eta musikarien arteko harremanetik sortutako kantagintza aztertzea.
- Euskal Herriaren historia sortzaileen ikuspegitik hausnartzea.
- Kantagintzak euskaldunon imaginarioa eraikitzerakoan duen garrantziaz gogoeta egitea.
- Kantagintzaren funtzioaren bilakaeraren ezaugarriez eta transmisioaren garrantziaz jabetzea.

Edukiak

- Idazle eta musikarien artean sortutako kantagintzaren historia.
- Kantagintzaren eta literaturaren bilakaera historikoa.
- Kantagintzak euskaldunon imaginarioan izan duen garrantzia.
- Eguneroko bizimoduan kezka gai ditugun kontzeptuei kanten bidez egindako ekarpena.
- Euskal Herriaren historia.

Metodologia

Idazleak eta musikariak aurkeztuko dira. **Kanta gehienak zuzenean joko dira.** Zenbait kanta grabazioetatik entzungo dira. Kantak aztertuko dira, bai letra bai musikari dagokionez.

*Rafa RUEDA. Musikaria, kulturgilea, literaturazalea...

*Gotzon BARANDIARAN ARTEAGA. Filologoa, idazlea, musikaria, kulturgilea...

EUSKAL MITOLOGIAREN AZTERBIDEAK

Uztailak 4, 5 eta 6. Donostiako EHU.
9:00-14:00

LEHEN EGUNA

- a. Hainbat aitzin-ohar:
 - Mitologiaren definizioa.
 - Lehengo eta oraingo mitologiak.
 - Herdoilaren liluraz haratago nola abiatu.
- b. Ahozko kontakizunen bilakaera arauak. Adibide praktikoak.
- c. Arauen aplikazioa “Jentilen akabera” mitoaren azterketari.
- d. Mitologiara hurbiltzeko bideak: hurbilbide ideologikoa eta hurbilbide filogenetikoa.

BIGARREN EGUNA

- a. Hurbilbide ideologikoa: Euskal Mitologia Konparatua liburuaren gainbegiratu komentatua. Mitologiak ideiak nola bideratzen eta zabaltzen dituen. Tentsio ideologikoa eta ideologia aldaketan aztarnak mitologian ikusgai.
- b. Gure nortasunaren gakoak mitologiaren bidez nola eskuratu. “Gure nortasuna” liburuxkaren gainbegiratu komentatua.
- c. XXI. mendeko euskal nortasun berria garatu beharraren inguruko gogoeta eta eztabaida.

HIRUGARREN EGUNA

- a. Hurbilbide filogenetikoa: Bakarrak eta besteenak ez bezalakoak al dira euskal mitologiako pertsonaiak eta mezuak? Badute inon senide edo antzekorik? Nondik norako bidea egin dute kontakizun eta legenda horiek?
- b. Euskal mitologia osatzen duten ziklo nagusien jatorri historikoa eta ibilbidea.
- c. Euskal mitologia egituratua: mezu ideologikoetan eta jatorri historikoan oinarrituriko ikuspegi orokor egituratua. Mitologia eta eguneroko bizitzaren uztarkera.

Metodologia

Modu praktikoa eta parte-hartzailez garatuko da, ikasleek testuen azterketarako gaitasunak eskura ditzaten.

* **Juan Inazio HARTSUAGA**. Antropologoa eta pentsalaria. Mitologian aditua. Hamaika liburu eta artikulua idatziak ditu gaiaren inguruan, eta, doktoretza-tesia ere egin du mitologiaren ahozko transmisioaren gainean.

m a t r i k u l a

Matrikula epea: [maiatzaren 31 arte](#).

	Ikastaro 1	<i>edo</i> 2 ikastaro
Ikastaroen prezio arrunta	95 euro	150 euro
Prezio murriztuak:		
- Hazi Hezi ko harpideak	80 euro	130 euro
- hik hasi ko harpideak	60 euro	100 euro
- Hazi Hezi + hik hasi ko harpideak	50 euro	90 euro
- Langabetuak	60 euro	100 euro
- EHUko ikasleak	50 euro	90 euro

* Ikastetxeko harpidetza bakoitzaz irakasle bat balia liteke.

Ordainketa:

- Zure matrikula aintzat hartua izan dadin, diru-sarrera egin behar duzu kontu zenbaki honetan:
LABORAL KUTXA ES31 - 3035 - 0036 - 15 - 0360062005
- Diru-sarrera egiterakoan, jarri matrikulatuaren izena eta bi abizenak.
- Ordain-agiririk ez bidali.
- Ikastaroan lekurik ez badago edo ikastaroa egiten ez bada, dirua itzuli egingo zaizu.

Matrikula www.hikhasi.eus/topaketak helbidean sartuz.

Adi! Ekainaren 17an mezu bat jasoko duzu zure *helbide elektronikoan*, Topaketan egitaraua eta dagokizun ikastaroko xehetasunak adieraziz.

***Oharra: 2 ikastarotan parte hartu behar dutenek (bata Donostian eta bestea Leioan), bi matrikula txartel bete behar dituzte, ikastaro bakoitzarentzat bana.**

Obarra: antolatzaileen esku gelditzen da programari behar diren aldaketak egitea.

Antolatzaileak



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Donostiako Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA